

80

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2013ko apirila



ELKARRIZKETA

Jon Landaburu,

Kolonbiako hizkuntzetan aditua:

*‘Kolonbiako
puinavearen
hizkuntza guztion
ondare da’*

EZTABAIDA

**Atez atekoa ala
bosgarren edukiontzia?**



BA AL ZENEKIEN?


**Leku-izenen itzaletan,
toponimia kriseilu**

ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE

ERREPORTAJEA

**Guztion eskumenean
dauden baliabideak**

Denbora-bankuak,
produktu eta zerbitzu
trukea, auzolana...
bada dirua besterik



IDAZKIAK

Eskabide elektronikoa (eta 2)



IVAPEKO ADMINISTRAZIO
HIZKERAREN ATALA

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:
Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Jon Arizkun, Bertol Arrieta, Begoña Ayerdi, Urtzi Barrenetxea, Lutxo Egja, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernandez, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Iñaki Iñurrieta, Inaxio Lopez de Arana, Luma, Uxune Martinez, Mertxe Mugika, Nerea Pikabea, Pablo Suberbiola, Idoia Torregarai, Joseba Uskola, Mikel Valverde

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritzia.

ISSN: 1576-5563
Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

- 2 **Komikia**
Mikel Valverde
- 4 **Pasadizoak**
Pentagramarik ez (eta 2)
- 5 **Pertsonaia**
Judith Jauregui
- 6 **DUDANET**
- 7 **Elkarrizketa**
Jon Landaburu
- 12 **Erreportajea**
Guztion eskumenean dauden
baliabideak
- 15 **Euskalduntzea**
Segi euskara elkarri ematen!
- 16 **Eztabaida**
Atez atekoa ala bosgarren
edukiontzia?
- [ARIKETAK]
- 19 **Leihatila**
INTERINEZ JAKIN-MINEZ
Inaxio Lopez de Arana
- 20 **Idazkiak**
Eskabide elektronikoa (eta 2)
- 24 **Gramatika**
Euskaltzaindiaren hiztegia,
ohar interesgarri batzuk I
- 26 **Informazio eta komunikazioaren teknologia**
LinkedIn: gizarte-sare profesionala
- 28 **Leihatila**
HIRU KAFE
Lutxo Egja
- 29 **Normalizazioa**
Arrue ikerketa 2011: nondik norakoak eta ondorio nagusiak
- 31 **Leihatila**
ZAKURKERIAK
Bertol Arrieta
- 32 **Ba al zenekien?**
Leku-izenen itzaletan,
toponimia krisailu
- 34 **Denbora-pasak**

JOXERRA INTERINEZ

Behin-behineko funtzionarioa



www.facebook.com/joxerra.interinez

Pentagramarik ez (eta 2)

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

HITZ GURUTZATUETAKO koadrotxo hutsetan hitz egokiz betetzeko azalpenak ematen dira. Esate baterako, bederatzi koadrotxo zuri daude errenkan goitik beherako 3. zutabea eta azalpenetan hau dio: Goitik behera 3: *burua txikia duen pertsona edo animalia*. Eta gurutzegrama betetzen ari dena pentsatzen hasten da: “Bederatzi koadrotxo dituk, beraz bederatzi letrako hitza behar. *Buruxka?* Ez, zazpi dizkik-eta. *Zapaburu?* Ezta ere, zortzi dizkik-eta, eta gainera zapaburuak oso buru handia dik proportzioan. *Burutxiki?* Bera izango duk, bederatzikoa duk-eta”. Eta koadrotxo batean *b*, hurrengoan *u*, bestean *r*... idazten du *b-u-r-u-t-x-i-k-i* osatu arte.

Gurutzegrametan maiz agertzen den kasua da honakoa: bi koadrotxo zuriz eta ondorengo ohar hau laguntzabide: *Antzinako Egiptoko jainkoa*. Erantzuna Ra da, Ra. Nire galdera: Nola ahoskatzen zuten Ra hori?

Txorakeria dirudi, baina ikusi. Hasierako R horri eutsiko diogu. Hitzaren aurreneko letra denez, guk dardaradun *r-z* ahoskatzen dugu, bibraziadun *r-z*, hau da, *rr-z*; beraz, Ra, Rra ahoskatzen dugu. Baina orduko egiptoar haiek? Nola jakin? Grafia ere ez zuten gurea bezalakoa; letren orde irudiak zituzten: hango katu, txori, begi, suge... Nola jakin, ba, zein *erre* mota txorropiotzen zuten?

Antzina-antzina hartako Egipto urrunera jo gabe, bertan ditugu gaur eguneko frantsesak. Hitz gurutzatuak entretengarri dituztenik ere izango dira haien artean, eta grafia gurea bezalakoa dute (edo guk berena bezalakoa). Eta? Ra ez dutela gure hotsez irakurtzen, *gira*-edo, *jgra*-edo ahoskatzen dute Frantziako alde gehienetan, nahiz eta ez denetan.

Bi ondoren behintzat eskaintzen dizkigu adibide honek: bata, ez dagoela zehatz jakiterik –ez dago-eta–, nolakoa den entzun ez den hotsa; bestea, hitz hasierako (robot), amaierako (ur) eta beste kasu batzuetako *r* (argal, troka...) *erre* ahoskatzen dugula guk (ez guztiok ere), baina *gjr* edo *jgr* frantsesek, eta hots horrek bere letra beharko lukeela eta ez daukala edo ez dagoela. *S*-ren eta *Z*-ren arteko aldea bestekoa bada *rr*-ren eta *jgr*-en artekoa. Eta *s* eta *z* bereizten ez dira ba? *Pentajgraman* hutsa.

Beste hau *x* kontua da. Euskarax *x* *ixa* omen da. Ondo dago.

Gaur egungo *Joxe*, *xagu*, *ximel* eta *Xatur*, lehen, sasoi luze batean, *Joshe*, *shagu*, *shimel*, *Shatur* idazten ziren. Eta gaztelaniazko *x*-dunak (ekisdunak), adibidez, *examen*, *xenofilo*, *xerantemo*, *xilografo*, euskaratuta, esan, *esamina*-*eksamina* (edo azterketa), *senofilo*-*ksenofilo* (edo arrotzale, garbizaleek), *serantemo*-*kserantemo* (edo garixta, garbizaleek) eta *silografo*-*ksi-*

lografo (edo zur-apaintzaile, garbizaleek), horrela esaten ziren.

Galdera: *ixa* bai, baina nola ahoskatzen da, *isha* ala *iksa*. Alegia *xagua* *ksagua* ala *shagua* da, *xilofioia* *shilofioia* ala *silofioia*-*ksilofioia* da? Pernandorena: “*Hiru mando eta bost karga*”.

Donostiako moilan gertatu omen zen. Txikitatik dakidan pasadizoa edo kontua da.

Behin batean Donostiako moilan jendea aztoratuta omen zebilen. Arrantzaleak eta arrain-saltzaileak ziren orduan, eta euskaldunak. “*Bixi dala ba!*” esaten omen zuten batzuek. “*Bixi ez dala ba*” esaten omen zuten beste batzuek. Eta guztiok zuten arrazoi. Zergatik? *Bixi* izeneko andre bat uretara erori eta ito egin zelako. Itota atera zuten, hilda: ez zen bixi, bai Bixi (María Visitación paperetan).

Baina kontu hau nik entzun egin nuen, ez irakurri. Eta entzundakoa letra larriak alferrekoak dira, ez dute esanahirik; idatzitakoan bai. Entzuna honela zen:

Behin batean Donostiako moilan jendea aztoratuta omen zebilen. Arrantzaleak eta arrain-saltzaileak ziren orduan, eta euskaldunak. “*Bixi dala ba!*” esaten omen zuten batzuek. “*Ez dala ba Bixi*” esaten omen zuten beste batzuek...

Ahoz kontatuta ez bereizten bixi eta Bixi; idatziz, berriz bixi ez izan Bixi. “*Hor tziopa*”, Tomas txikiren pentagraman. ■

JUDITH JAUREGUI, PIANO-JOTZAILEA:

‘Musika klasikoa sentitzeko egina dago’

NEREA PIKABEA
KAZETARIA



Dantza soltean bezala ibiltzen dira Judithen behatzak pianoan gora eta behera, dotore, barruko sentipenak tekla zuri eta beltzetan askatu eta entzuleenarekin bat egin nahian. Trebetasun horrek Europako agertoki garrantzitsuenetara eraman du hogeita zortzi urteko donostiarra. Musika klasikoaren hesiak apurtu eta klasikoa entzule berrietara zabaltzeko lanean ari da.

Zergatik aukeratu zenuen pianoa?

Biolina ikasten hasi nintzen lau urterekin, baina urtebete geroago argi adierazi nuen pianoa nuela gogoko. Pianoarekin jolas egiten nuen, eta niretzako ibilbide naturala izan da.

Gogorra al da txiki-txikitatik maila horretan ibiltzea?

Ez dut haurtzaro gogorra izan, eta, gainera, beti izan dut familiaren babesa. Azken batean, asko zor diot pianoari. Bizimodu zoragarria da piano-jotzailearena, baina indartsua izan behar duzu, egonkorra; borroka asko egin behar da.

Kontserbatorioko urteak nahikoa al dira pianoa jotzen ikasteko?

Piano-jotzailearena bizitza osoko ibilbidea da. Pertsona bakoitzak bere soinua du eta hori bizitzan zehar ikasten da. Norberaren esperientziak, gero, pianoan islatzen dira.

Agertokia da zure erakusleia?

Agertokia zu zarenaren ispilua da, entzulearekin partekatze tokia. Sentitu eta sentiarazi egin behar duzu, barruan duzun guztia atera. Beldurtuta edo harrotuta ateratzen bazara, entzuleak sumatu egiten du. Baina gozatzen ari zarenean ere, ohartu egiten da.

Zein izan dira zure eredu?

Nire irakasle guztiak, baina nire aholkulari nagusia Vadim Suchanov maisu errusiarra da, Municheko Richard Strauss kontserbatoriokoa. Burua eta bihotza ireki zizkidan, nire emozioak pianoan islatzen erakutsi zidan. Harreman aparta dut berarekin.

Azken urteetan musika klasikoa asko hedatu den arren, oraindik ez da lortzen entzuleak erakartzea.

Ez da adituentzat edota larruzko berokiek datozen emakumeentzat soilik eginiko musika; klasikoari galtza bake-roak jarri beharrean gaude. Estigma hori kendu beharra daukagu. Klasikoa, beste edozein musika mota bezala, sentitzeko egina dago.

‘Homenaje a Alicia de Larrocha’ izeneko diskoa kaleratu berri duzu.

Laurogeita hamar urte betetzen dira aurtan Larrocha jaio zela. Piano-jotzaileek asko zor diogu; eredu izan da guretzat. Txikitatik miretsi izan dut, bere musika eta bere nortasun izugarria. Bere ekarpenarengatik eskerrak eman nahi dizkiot. BerliMusic izeneko neure zigiluarekin kaleratu dut diskoa, edukia neuk erabaki nahi nuelako.

Aurrera begira, zer proiektu dituzu esku artean?

Bakarka zein orkestrekin batera egin nahi dut lan. Agertokian dago nire bizia. Musikarako zaletasun handia dut, ikaragarri gozatzen dut. Pianoa jotzetik bizi nahiko nuke beti. ■

DUDANET lineako kontsulta-zerbitzua

Hemen dituzu IVAPeko DUDANET kontsulta-zerbitzuan erantzundako zenbait zalantza:

GALDERA

Zuzenak al dira esaldi hauek?

–Zer gogoratzen zara garai hartaz?

–Ez naiz ezer gogoratzen garai hartaz.

ERANTZUNA

Gogoratu aditzaren objektua *nor* kasuan doanean, *edunekin* erabiltzen da. Objektua *zertaz* kasuan doanean, berriz, *izanekin*.

Ez dut EZER gogoratzen.

Ez naiz EZERTAZ gogoratzen.

ZER gogoratzen duzu?

ZERTAZ gogoratzen zara?

Beraz, gramatika aldetik esaldi okerrak dira.

Informazio gehiago:

- ZUBIRI, Ilari; Zubiri, Entzi. *Euskal gramatika osoa*. 2. argit. Bilbo. Di-daktiker, (2000). 516. or.

GALDERA

Zerrenda bati amaiera ematen jartzen diren eten-puntuekin batera (aurretik) koma jartzeaz ezer badago araututa, hobetsita edo dokumentatuta? Adib:

“Arazo ugari sortzen ditu, esaterako, ordezkapenen inaupen luzea, prestu beharra, lan-poltsak eratu beharra, ...”

ERANTZUNA

Eten puntuen aurretik ez da jartzen ez komarik, ez puntu eta komarik, ez bi punturik, ez punturik. Ostetik, berriz, aipatutako puntuazio zeinu guztiak jar daitezke puntua izan ezik.

Beraz, aipatzen duzun kasuko koma okerra izango litzateke.

GALDERA

Apalategi batean 20 liburu edukiz gero eta horietatik 10 baino ez irakurrita, irakurriak ditugunak adierazteko, LIBURUEN ERDIAK da esapide zuzena (nahiz, egun, bestelakorik ere badabilen barra-barra hedabideetan: “Greba dela eta, trenen erdia ibiliko da...”).

Horren harira, hauxe duzue gure galdera: Berdin gertatzen al da *heren*, *laurden* eta abarren kasuan; hau da LIBURUEN HE-RENAK da esapide zuzena?

ERANTZUNA

Erdi, *heren* eta *laurden* zatiki-hitzak artikulatu pluralarekin erabiltzen dira izen zenbakarri pluralekin.

Beraz, zuzenak dira hurrengo esaldiak:

Apalategiko liburuen erdiak irakurri ditut.

Apalategiko liburuen herenak irakurri ditut.

Apalategiko liburuen laurdenak irakurri ditut.

Informazio gehiago:

- PETRIRENA, Patxi. *Morfosintaxia-
ren inguruko zalantzak eta argibideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2011 (136. or.).
- ZUBIRI, Ilari; Zubiri, Entzi. *Euskal gramatika osoa*. 2. argit. Bilbo. Di-daktiker, (2000). 150. or.

GALDERA

LEHEN(A) eta LEHENENGO(A): Noiz erabili bakoitza? Zein balioesten da? Ba al da ezberdintasunik aukera bien erabileren artean?

Adibidez: *“Lehen atalean agertzen da”* ala *“Lehenengo atalean agertzen da”*, *“Lehenak izango gara”* ala *“Lehenengoak izango gara”*, *“Lehen erosleak eraman du”* ala *“Lehenengo erosleak eraman du”*, e.a.

ERANTZUNA

Bi formak dira egoki. Biak daude Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* jasota. Halaber daude jasota *lehenbiziko*, *lehendabiziko*, *aurren* eta *aurreneko* formak.

Euskaltzaindiak ez du forma bakoitzaren inguruko irizpide zehatzik eman. Beraz, denak dira baliokide.

Antzeko kontsulta gehiago ikusteko, edo zeure zalantzak argitzeko:


<http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=eu>

JON LANDABURU,

KOLONBIAKO HIZKUNTZETAN ADITUA:

‘Kolonbiako puinavearen hizkuntza guztion ondare da’

MIEL A. ELUSTONDO
IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA



Jon Landaburu Illaramendi (Paris, 1943) Kolonbiako hizkuntzetan aditurik behinena da, herri indigenen hizkuntza eta kulturak inork ez bezala ezagutzen ditu. Haiek biziberritzeko lanean ari da joan den berrogei urtean, hizkuntza aniztasunaren alde beti. Aipu eta sona handiko hizkuntzalari saritua –Linguapax saria, iaz bertan–, UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco katedraren ohorezko kide da.

Hizkuntza bat, bi, hiru... dira jokoan gurean. Zinez bestelakoa da egoera zure barrutian, Kolonbian: talde etnikoen 68 hizkuntza, 65 hizkuntza indigena, bi hizkuntza afro-amerikar edo kreolera –batak oinarri hispanikoa duena, besteak ingelesa–, eta ijito komunitateen hizkuntzak...

Horrela da, bai. 65 hizkuntza indigena horietan, 13 familia dituzu. Tartean, 8 hizkuntza isolatu, 100.000 hitzun baino gehiago dituzten hizkuntzak. Adibidez, guajiroak, Guajirako guaiuak, Kolonbian eta Venezuelan bizi dira. 500.000 lagun dituzu –herri inportantea, hortaz–, beren hizkuntza modu ezin hobean perfektu hitz egiten dutenak.

‘Hizkuntza eskolak erakustea ez da gaitza, baina problema bai’

Inoiz irakurri dizut beren hizkuntza eskolaratetik ihesean bizi direla zenbait komunitate indigena...

Konturatu dira hizkuntza eskolara sartzea Troiako zaldia egitea dela, suntsipen kulturalaren Troiako zaldia. Harri garria zaizu... Komunitateak berak zuzentzen ez badu, eskolak sekulakoak egiten ditu: maisuak sartzen ditu, arauak ezartzen dizkie, soldataren bidez kontrolatzen ditu, edukiak erabakitzen ditu... Garungabetu egiten ditu ikasleak, hau da, komunitateko hitzunak. Garai batean, aurrerapenaren sinonimo zen eskola, eta delako aurrerapen horren ize-nean ez-egiteko galantak egin izan dira. Eskolaratzeak onura handiak ekarri ditu, baina izpiritua koadratu ditu, buruko tresneria asko bazterrera utzi ditu. Ikusi

egin behar tresna horiek errekuperatzeko modurik dagoen! Han ez ezik, hemen!

Hortaz, indigenak arrazoi du eskola Troiako zaldia dela esaten duelarik?

Bai. Uste dut baietz. Talde indigena batzuek ez dute eskolarik nahi. Are gehiago, herri erakundeak ere onartzen ari dira zenbait jende eskolara joan nahi ez izatea.

Hizkuntza eskola bidez erakustea ere ez?

Hizkuntza ez da eskola bidez erakusten, hizkuntza familia eta komunitatearen bidez erakusten da. Eskolak zer ematen dio, bada, hizkuntzari?

Gure kasuan, eskolak erakutsi du euskara...

Hori problema bat da. Ez dut esaten gaitz bat denik, problema dela baizik. Euskaraz hitz egiten da eskolan, etxean, kalean? Familiaren bidez ikasitakoa erabiltzen du hitzunak, funtsean. Beste hizkuntza bat erabiltzekotan, helduaroan halako erabaki sendo bat hartu delako da, nor bere interesen arabera mundu batzuetan sartu delako, edo halako esperientzia indartsu batzuen ondorioz ikasi delako. Eskolak asko egin lezake hizkuntzaren irakaskuntzaren alde, baina, diseinatuta dagoen moduan, nire ustez, zeharo arkaikoa da instituzioa. Aldatu beharra dago, guztiz. Teknologia berriak, ordenagailuak, Internet ditugu, eta, hala ere, hogeita hamar ikasle, espazio koadro batean, aurrean pertsona bat dutela, idazten irakasten... Instituzio arkaikoa iruditzen zait, hitzaren esanahirik txarrean. Ez dio erantzuten behar dugunari. Eskola indigenak deskulturazio tresna izan dira, hizkuntza eta kultura indigenak abandonatzeko sistema... Goitik behera aldatu behar da eskola. Herri indigenen mugimendu politikoak indartsuak direnean –eta Kolonbian badira batzuk–, bestelako eskolako eredu bat ari dira planteatzen. Hori oso inportantea da, eta uste dut hemen ere horrelakoren bat pentsatzen hasi beharko dugula.

Herri indigenetarik ikasi behar dugu... Dudarik gabe. Gauza asko.

80ko hamarkadan hizkuntza indigenen aldeko legeak ezarri zituzten Kolonbian. Harrezkero, lege-araudiak oparo eta aurrerakoi garatu direla esan izan duzu. Aldi berean, hori “erreal” dela esan izan duzu, egia delako, batetik; errealismo magikotik ere baduelako, bestetik...

Bietatik du. Aldaketa normatiboak eragina du estatuaren instantzietan, eta, poliki-poliki jendeak ere aldatu egiten ditu balio eta portaerak: bai tokian tokiko funtzionarioak, bai tokian tokiko hezkuntza-ikuskatzaileak ere... Lehen, esango zuen: “Kontu hau erradikatu egin behar da, salbaien hizkuntza da...”. Orain ez diote horrelakorik onartuko. Goitik zera aginduko diote: “Ez duzu horrelakorik egiterik. Hizkuntza indigenari leku egin behar diozu...”. Hezkuntza arduradun, ikuskatzaile edo irakasle adinekoak nekez aldatuko ditu bere uste eta sinesteak; sasoikoa bere buruari galdezka hasiko da, edo hitzaldi eta mintegietara joko du, gaztea hizkuntza indigenaren alde lerratuko da... Luzera, bai, gauzak aldatu egingo dira. Aldatzen ari dira.

“Aldatzen ari dira”...

Bai. Honetan hasi nintzenean, orain dela berrogei urte, Bogotan galdetzen zidaten: “Zertan ari zara?”. “Hizkuntza indigenak aztertzen ari naiz”. “Hemen ez dago-eta hizkuntza indigenarik!”, erantzuten zidaten bogotarrek. “Hori historia da, joandako ura!”, haiek, eta nik: “Bizi diren lekura joan eta beraiekin hitz egiten dut-eta! Nola izango da, bada, historia! Urari *kaito* esaten diote, eguzkiari *jouju!*”. Harri eta zur begiratzen zidaten. Ez zitzaien asko gustatzen esaten nuena entzutea. Gaztea, arraza zurikoa, europarra nintzaian, eta ni indio artean sartzea... lotsagarria zitzaian, nolabait. Indioak ezkutatu beharrekoak

ziren, iragana, inork jakin nahi ez zuena. Izan ere, amerikar paradigma zuten aspiraziorik gorena. Lehenago, ingeles paradigma izana zen nagusi, eta lehenago, frantsesa...


‘Instituzio arkaikoa iruditzen zait eskola; ez dio erantzuten behar dugunari’

Espainola, berriz, lehenago, ala?

Bai. Kolonbiak, 1991 arte, hizkuntza hispanikoa, kultura hispanikoa eta erlijio katolikoa zituela esanez definitzen zuen bere burua. 80ko eta 90eko hamarkadetako garaia oso latza izan zen: bateko narkotrafikoa eta besteko krisia; zirra orokorraren sasoi!... Eta, orduan, ikasleek konstituziogilera [Konstituzioa idatzi zuen batzarra] jotzeko mekanismo bat lortu zuten, eta indigenak batzar hartan sartu ahal izan ziren. Gogoan dut, behin, herri guambianoko kide bat konstituziogileko tribunara igo zela, hitzaren jabe. Arduradun politikoak, telebista kamerak... denak berari begira zituen, eta bere hizkuntzan hasi zen. Jende askok orduantxe jakin zuen kolonbiar mordo batek gaztelania ez beste hizkuntzaren bat hitz egiten zuela. “Ni kolonbiarra naiz, neure hizkuntzan hitz egin dut, baina zuek ez duzue ulertzen. Nik zuek errespetatzen zaituztedanez, halaxe errespetatu behar nauzue zuek ni”, esan zuen guambianoak.

Errespetu eske ari zen...

Gehiago ere esan zuen: “Zuek Jainkoa aipatu duzue Konstituzioaren atarikoan. Ados nago, baina Jainko jakin bat, eliza katolikoarekiko konkordatua eta beste.



IZAN, BADA

“Baliabide mental eta adierazpen espresibo eta afektiboak geure esperientziara –eta besterenera– ekartzen ikasi behar dugu. Horretarako, hezkuntza sistema guztiz aldatu behar da. Kontua ez da halako nola esaten den jakitea, giza espirituari berezko zaion sormenaren hitz-jarioa garatzea baizik. Han eta hemen eta munduan. Amazonako oihanean bizi izan naiz eta ezagutu izan ditut gau eta egun mitologia kontatzen, genealogia egiten, poesiak esaten... egon litezkeen agure eta apaiz zaharrak. Hirian ez dago haien orpora iritsiko den letradunik, haien oroimena duenik, haien baliabideen oparotasuna, haien aberastasun intelektuala. Hori, izan, bada, existitzen da, eta inportantea da garatzeko espazioa uztea”.

Ez. Horretan ez nago ados. Zuen Jainkoa aipatzekotan, nire 75 jainkoak ere aipatu beharko zenituzkete”. Eta barre algara eta harridura artean, egoera aldatzen hasi zen. Esan nahi dut, Konstituzioak talde etnikoei zegokien araudi interesgarria garatu zuen.

Zertan zen interesgarri?

Lurren aferan, batik bat, harrezkero lur-
rrak indioenak baitira, ezin kendu zaizkie, ez besterendu, ez inori saldu. Eta, oraintxe, 250.000 kilometro koadro lur dira komunitate indigenen esku. Espainiar estatuaren azaleraren erdia baino gehiago, Kolonbiako azaleraren bostena. Jakina, hori dira oraindik ziurgabetasuna, gerrilla, biolentzia... baina lege-araudiak

babes ikaragarria eman die herri indigenei, etorkizuna beren nahiaren arabera zuzentzeko ahalmen handia.

Ziurgabetasuna, gerrilla, biolentzia, narkotrafikoa... zer ikustekorik dute hizkuntza indigenekin?

Hizkuntza indigenekin ikustekorik ez dute, jakina, baina kontuan hartu behar da indioen demografiaren eboluzioarekin batera, talde askok erdialdetik periferiara ihes egin zutela, oihan, sabana eta urrutiko mendietara joan zirela bizitzera... Jo dezagun: Espainiar konkista Karibeko itsasertzean hasi zen, non sekulako txokea –oroiz gain, biologikoa, hau da, mikrobianoa– gertatu baitzen. Dakigunez, populazio indigena kasik erabat

‘Narkotrafikoa, gerrilla... gatazkak gogor zigortu ditu bazter lekuetako indigenak’

desagertu zen itsasertz hartan. Barnealdean, Andean, mestizaia prozesua hasi zen, indioaren ikusezintasuna. India ikusezin egin baitzen! Ez zirela indio esaten hasi ziren, mestizo zirela, kolonia garaian mestizoa halako kasta ezberdin bat baitzen... Hortaz, periferiara ihes egin zutenek beste herri batzuekin bat egin zuten mendi-oihanetan. Jende horrek luzaro bizirautea lortu zuen. Bada, zonalde horietan ezarri ziren talde subertsiboak, erdigunetik urruti daudelako eta zaila delako bertara heltzea. Narkotrafikoa, gerrilla... gatazkak gogor zigortu ditu bazter lekuetako indigenak.

Lege-araudien egokitasuna gorabehera, ez dela behar bezala aplikatu esan izan duzu inoiz, berandu aplikatu dela, oztopatu ere egin izan dutela. Eta gatzelania inposatzeko indarrek ere bizirik irauten dutela...

Bai, horretan naiz. Oraintxe ari gara irteten bost mende iraun duen mespretxu, minorizazio eta bazterkeriatik. Ez da erraza. Joan den berrogei urte honetan terreno asko irabazi da, neure begiez ikusi dut. Portaera arrazistak eta diskriminazio egoerak lehen baino askoz gutxiago dira, baina oraindik ere badira, badirenez.

Nola daiteke gatzelania inposatzeko indarrik izatea, gatzelania Kolonbian leku guztietan presente izanik?

Hain zuzen, horrexegatik, gaztelania ez dagoelako leku guztietan. Badira herri elebakarrak –gutxi, baina badira–, zonalde baztertuetan. Haatik, gutxiengo etniko horien baitan izan ezik, gaztelania leku guztietan dago. Gaztelania inposatzeko indarra zer da, orduan? Gainerako hizkuntzak eskluditzeko asmoa! Horra eskola, berriro! Dudarik ez, kasu askotan jendeak gaztelania behar du (eta eskatzen du), saltzaileekin, funtzionarioekin eta gainerakoekin komunikatzeko beharrezkoa zaiolako. Kolonbian bizitzaren parte inportantea da gaztelania, eta alde horretatik garrantzizkoa da eskolak gaztelania irakastea, baina beste modu irekiago batera ulertu behar da irakaskuntza hori, bizitza kolektibotik aparte.

Aztertua duzu hizkuntzak errebindikazio indigenaren barne duen garrantzia...

Herrialdeko zenbait lekutan errebindikazio indigenak tradizioa du oinarri, hau da, ohiturak, erlijio sinesteak eta beste. 70eko hamarkadatik hona, aldiz, erakunde berri asko sortu dira, indigenen aginte organo tradizioaletatik aparte. Lider gazteak ohi dira, alfabetatuak, kontzientzia eta identitate berriak garatu dituztenak. Finean, boteregune berri bat jaso dute, estatuari aurre egiteko asmotan. Gazte horiek altxamenduak bultzatu dituzte, lur okupazioak... 70eko hamarkadan, indigenak herrialdeko nekazarien mugimendu eta elkarteetan sartu ziren, haiekin bat egin zuten. Handik, batzuek eta besteek lurra okupatzea bultzatu zuten, lurra liberatzea, baina indigenak laster konturatu ziren beraien borroka nekazariena ez bezalakoa zela.

Borroka ezberdinak, indigenak eta nekazariak...

Bestela funtzionatzen dute. Erakundetze modu ezberdinak dituzte, sineste ezberdinak, hizkuntza ezberdinak... Indigenek ez zuten amore eman, ez zuten etsi. Kontraesana sortu zen nekazarien mugimen-

duaren eta mugimendu indigenaren artean. 1970etik 74ra bitartean batik bat... Oso garai interesgarria da hori. Kontraesanek indigenak nekazarien mugimendutik irtetea ekarri zuten, eta, horrela, beren borroka propioa indartu zuten.

‘Gaztelania inposatzeko indarra gainerako hizkuntzak eskluditzeko asmoa da’

Zergatik ematen dio gizakiak tamaina handi horretako garrantzia bere hizkuntzari, besterenaren gainetik? Inork ez du bere hizkuntza utzi nahi... Batak ez du euskara utzi nahi, besteak gaztelaniari eutsi nahi dio, halakok hizkuntza indigenari, besteak...

Egia da inork ez duela bere hizkuntza utzi nahi, afektuen hizkuntza, amarena, mundua deskubritu zuen hizkuntza, gauzak koloreztatzen hasi zen hizkuntza... Norberaren atal barnekoia da mundu hori, eta nekez ukatuko du inork. Are gehiago, atal hori haur eta gazte garaian behar bezala garatu ez denean, mundu mentala adierazteko behar beste garatu ez denean, mugatua ikusten dugu geure burua. Gauza unibertuala da. Hara, bai Kolonbian, eta bai hemen, misiolariak haurrak jaso eta barnetegira eramaten zituztenean, ama-hizkuntzan hitz egitea galarazten zieten. Garai horren amaiera ikusi dut, bai Kolonbian eta bai hemen, lekukotasun asko ditut... Jende horrek, intimitatean, ezgaitutzat ikusten zuen bere burua, handicap bezala, ezin izan

zutelako helduaren aberastasun mentala beren hizkuntzan adierazi. Haur zirenean, gurasoek hazia erein zuten haien barnean, sustraiak egin zituzten. Sustrai eta hazi haiek hazi egin behar zuten, arbola eder egin, baina ez ziren hazi. Eta gaztelania ere ez zieten behar beste irakatsi –nekazari letragabeak zirelakoan, inondik ere–, eta gaztelaniak edo beste hizkuntzek garatu duten edertasunera sarbiderik ere ez zieten eman. Jende uzkurra, lotsatia sortu zuten.

Horren ondorioak bizi ditu indigenak gaur egun...

Esango dizut. Badut esperientzia polit bat. Duela hiru urte Kolonbiako kultura ministro anderearekin izan nintzen bilkura batean, Ekialdeko Llanoetan. Han ziren kultura ministerioko arduradun guztiak: letretako zuzendaria, zinema zuzendaria, kultura zuzendaria, departamenduko gobernadorea, alkatea... Herri puinaveko lider indigena batek hitza hartu eta hasi zen, gaztelaniaz: “Gu... ministro anderea... gobernadore... mila esker... gure bihotza... zuek... urrundik... gatoz...”. Minusbaliatu mentala zen gure begietan. Gu, bateko zuzendari eta besteko arduradun, elkarri begira, “Indio gizajoa!” esanez, gure artean. Eta, orduan: “Orain, nik nire hizkuntza hitz egin!”. Eta hasi zen! Eta haren etorria, haren erretolika, haren lehertzea, txiste eta jolasa, kolore eta aberastasuna! Hark bere hizkuntza garatzeko egokiera izan zuen! Kasu horretan, giza esperientziaren aberastasuna besterik da. Entzuten dugunaren arabera epaitzen dugu, eta puinave hura ez balitz bere hizkuntzan hitz egitera ausartu, kito! “Indio gizajoa, baldar baldresa!” horrekin geratuko ginateke. Eta oker ikaragarria da hori. Puinave hura xamana zen, lehen mailako lider espiritual! Benetan esaten dizut, Kolonbiako puinavearen hizkuntza guztion ondare da... ■


Guztion eskumenean dauden baliabideak

Denbora-bankuak, produktu eta zerbitzu trukea, auzolana... bada dirua besterik

JON ARIZKUN
KAZETARIA

Bizi garen gizartean, beharrianak betetzeko modurik lehena da premiak aseko dizkiguten ondasun eta zerbitzuak diru truke erostea. Diru horri dagokionez, berriz, beste batzuek behar dituzten baliabideak saldurik lortu izan dugu. Jose Luis Coraggio ekonomialari argentinarren esanetan (www.coraggioeconomia.org), hori bezain egia da truke bidez ere baliatzen ahal garela noiztenka, eta truke sistemak berak hagitz garrantzi ezberdina izan duela gizarte kapitalistan, eta, are, gizarte zaharretan.

Hasmentan, badirudi ez zela inolako antolamendurik, eta halabeharrez agitzen zirela trukeak. Alta, zoriak agintzen zuen. Noizetik noizera truke egiteak berez ekarri zuen, ezarian-ezarian, “nik zuri, zuk niri” beste legerik ez zuen sistema nolabait arautzea eta, ondorioz, zenbait kopuru edo salneurri zehaztea halako edo halako transakzio egin behar zen aldiko. Trukea ez baitzen gauza antolatua –hots, zoriak arautua baitzen–, bi aldeek leku eta une jakin batean bat egitea behar zen, eta balizko bi aldeak bata bestearentzako baliagarri izanen zen ondasun edo ahalmenaren jabe izatea. Prozesua aiseago gerta zedin, kasu guzietarako balioko zuen merkantzia gisako bat instituzionaldu zen, esan nahi baita, dirua. Txanpona esku-rik esku ibiltzeak dirua ordainsari nagusiztat onartzea ekarri zuen, dirua guztiz instituzionaltzea eta, denboraren joanean, salerosketa guzietan, eta guzietarako, moneta nahitaezko elementu izatea. Moneta txanpon izan zen lehenik, papera ondoren, diru elektronikoa dugu egun.



TRUKEA

Coraggiok dioenez, merkatu kapitalistak uko egin zion hasmentako transakzio haren lehen helburuari –esan nahi baita, beharrak asetzeari–, eta, orde, beste bat zuen lehenetsi: kapital metatzea. Horrela, egun, enpresak hainbat produktu ekoizten eta saltzen ditu dirua irabazteko xedez, eta ez, besterik gabe, kontsumo-gaiak erdiesteko. Haatik, produktuak saltzekotan, kontsumitzailea behar du enpresak, dirua hartu eta merkatura joan dadin erostera. Honenbestez, kapitalaren zikloa beteko da. Gisa honetan, kontsumitzailea ez da diru-eramaile baizik, eta, halaber, ez da aintzat hartzekoa, ez bada dirua gasta dezan norberaren enpresak eskaintzen dituen produktuetan, ezen ez ondoko lehiakideak dituenetan. Honderrean, gizarte merkatuan ezinezko da dirurik gabe norberaren izerdiaren ondorio ez den ondasunen jabe legalki izatea. Guziok dakigu, gure baitaraino sartua dugu jokoaren araua. Eta, hala ere, noizetik noizera, trukea aipatzen da, eta praktikatzen, han eta hemen...

Alta, han-hemengo gizarteek ez diote inoiz trukeari utzi. Noiz bai, noiz ez, gizarte kapitalista aitzinatuenak ere baliatu dira trukeaz. Besterik da truke orokortuari dagokionez, trukea ez baita nagusitzen diruak bere balioa guziz, edo kasik guziz, galtzen duenean, edota gizarteko kide anitz merkatutik kanpo geratzen direnean, diru sarrerarik ez dutelako, batik bat. Pertsona horiek lan egiteko ahalmena, gaitasuna eta baliabideak izan ditzakete baina baliteke merkatuak haien lana ez onartzea, dela haien prezioa ez delako lehiakor, edo ez duelako behar beste kalitate, esaterako. Gizarteko kideok izan daitezke higiezin eta zenbait ondasunen jabe ere, baina merkatuak ez du haietan interesik...

Trukea hauspotu egiten dute gisako egoerek. Merkatua krisiak jotzen duelarik, dituen eta ez dituen iturrietara jotzen du gizarteak eta, manera horretan ohitura zaharra berritzen du. Ho-



Auzolanean bolatokia egiten.

retan gara egun, eta egun baino lehen ere, truke guziak ez baitira merkatuaren legearen arabera eratzen. Hiru adibide ditugu jarraian: denbora-bankua, Udaltruke proiektua eta auzolana.

DENBORA-BANKUA

Denbora-bankuak 1970ean egin zuen lehen urratsa, Kanadako British Columbian. Handik goiti, Australia, Zeelanda Berria, Erresuma Batua, Argentina eta bestetara hedatu zen esperientzia, harik eta gorpuztu zen arte.

Denbora-bankuaren xede da bertako bezeroek zerbitzuak eta denbora trukatzeko. Denbora da txanpon, moneta eta ordainagiri, trukearen unitatea ordua da eta, bertzalde, zerbitzu guztiek balio bera dute.

Trukea egiten delarik, nork bere jakituria, trebetasuna edo abilezia eskaini ohi du, hurkoaren beharrak asetzen laguntzeko asmoz betiere. Vitoria-Gasteizko Izarretan oinez elkartea denbora-banku da eta, bertan, errateko, lanbide kualifikatu nahiz kualifikatu gabeen zerbi-

tzuak behar dituenari lagundu ohi diote, egun oroz bizian sortzen zaizkigun beharrei erantzunez eta denbora urria eskainiz. Honenbestez, batak besteari laguntzen diote denbora-bankuko bezeroek, esan nahi baita, batak besteari ematen diola denbora.

Elkartearen helburu ere bada jendea elkarri laguntzeko beharraz jabearaztea eta guztion bizi-kalitatea hobetzea, nork bere baitarik duena emanaz, ongien egiten duena besteentzat ere eginez.

Gasteizko elkartea 2004ko irailean abiarazi zuten eta Nagusi saria jaso zuen iaz, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailaren eskutik, “gure gizartea hobetzeko eta adineko jendeak gizartearen parte aktibo izaten jarrai dezan” egiten duen lanaren aldera. Ordea, adinekoek ez ezik, sasoi guzietako jendeek parte hartzen dute elkartearen, eta gazte, heldu nahiz adineko, denetarik da Izarretan oinez taldean.

Sortzetik hona, elkarteak elkartasuna, elkarlana eta elkar laguntza izan ditu

SEGI EUSKARA ELKARRI EMATEN!

MERTXE MUGIKA

AEKREN KOORDINATZAILE NAGUSIA

Lerro hauek irakurtzeko parada izango duzuenan, Korrika 18k bere ibilbidea egina izango du eta, seguruenik, balorazio uneak izango dira. Hortaz, hurrengo Korrika ardaztuko duena pentsatzen hasita egongo gara AEKideok.

Duela bi urte bezala egongo gara, beraz; zer kontatuko dugu 19. Korrikan? Bada, galdera hori egiten genion geure buruari 2011ko udazkenaren bueltan. Non egongo da Euskalgintza 2013ko udaberrian? Ze mezu helaraziko dugu Korrika 18n?

2011ko udazkenean, nahiko argi ikus zitekeen elkarbizitzaren arlo berri bate-rantz zihoala euskal jendartea. Ideia horretatik tiraka borobildu genuen Korrika 18k martxoaren 14tik 24ra Euskal Herriko errepideetatik zehar barreiatu behar zuen mezua: Eman euskara elkarri.

Euskara behar dugu, euskal herritarron elkarbizitzarako gakoa delako, kohesiorako lehengaia eta tresna; elkarrekin bizitzeko, elkarri hitz egiteko, elkarri entzuteko, eta elkar ulertzeko tresna, alegia. Baina horretarako, egia bihur dezagun, gurea den hizkuntza jakitea beharrezkoa da. Denok dugu zeresana eta zeregina, baina euskara ikasleak izan dira, eta dira, lan esker-ega egin dutenak eta egiten ari direnak. Eta

hori eskertzeko, merezi dutelako, Korrika honetan haiek izan dira omenduak.

Milaka izan dira euskara ikasteko pausua eman dutenak, eta ederki ikasi ere! Une honetan jendetza ari da *euskalakari* izateko ahaleginetan. Nork ez du ezagutzen lanetik irten eta euskaltegira doan bat edo bat? Edota udako oporretan barne-tegian aritu izan dena? Adibide xume bi besterik ez dira, jakina; baina zenbat bi- zipen, esfortzu eta abar dago milaka ho- rien atzean? Izugarria da euskara ikasleek elkarbizitzari egiten dioten ekarpena, izan ere, elkarbizitzarako aukerak sortzen ari dira etengabe; horrexegatik merezi izan dute Korrikan egin zaien gorazarrea.

Izan ere, sarri askotan ez da ezagutzen euskara ikasten ari direnek egiten duten esfortzua, denboran zein dirutan egiten duten ahalegina. Askok eta askok astean 6-10 ordu igarotzen dute euskaltegietan; beste askok, bestalde, autoikaskuntza aukeratzten dute eta ordenagailu zein tutoretzetan hainbat ordu ematen dute. Hori gutxi balitz, berezkoa duten hizkuntza ikasteko dirutza ordaindu behar izaten dute; eta hori ez da onargarria ez ulergarria.

Ez dago zalantzarik: euskara ikasleek elkarbizitzari egin dioten ekarpena oso handia da. Idatziz jasota dago azken hamarkadetan euskarak 300.000 hiztun irabazi dituela eta, horietatik, laurdena euskaltegietan euskaldundu diren pertsonen esker izan dela. Hori horrela, nekez uler daiteke euskararen normalizazioa euskara ikasleak kontuan hartu gabe.

Arrazoi asko izan ditugu ikasleak omentzeko; lehen hizkuntza euskara izan dugunok ez gara ohartzen, sarri askotan, euskalduntzeko zein alfabetatzeko ahaleginaren atzean dagoen kemenaz. Gainera, kontaezinak dira euskara ikasteko dauden motibazioak; batzuk lana aurkitzeko, beste batzuk maitasunagatik, seme-alabekin euskaraz aritzeko, gurea den hizkuntza delako; edo, duela gutxi ikasle bati entzun nion, inbidiagatik. Bide asko, beraz, euskarara hurbiltzeko, baina guztiek helmuga bera: euskara ikastea eta euskaraz bizi ahal izatea.

Arantxa Urretabizkaia idazleak *Eman euskara elkarri. Solasaldiak* bideoan Rakel Navarro euskara ikasleari esaten dion esaldi batek laburbiltzen du omenaldia- ren zentzua: “Ez dakit izango nukeen behar haina adore edo kemen hizkuntza bat hutsetik ikasi eta menderatzeko; nik joera hori asko miresten dut”.

Euskara ikasi dutenak eta ikasten ari direnak aipatu ditugu orain arte, ha- lere, oraindik asko dira euskara ikasteko pausua eman ez dutenak; eta horiek ere euskarara erakarri behar ditugu, herri honen etorkizuna ezin delako ulertu euskararik gabe. Hizkuntzen arteko bene- tako berdintasuna eman dadin, euskarak hiztunak irabazi behar ditu; horretarako, ez dakienak komunikatzeko beste ikasi behar luke. Eta hori horrela izan dadin, erraztasunak eman behar dira, baliabi- deak eskaini behar dira.

Orain arte ikasi dutenek ahalegin handia egin behar izan dute, denboran zein di- rutan; hemendik aurrera euskara ikasten dutenen ahalegin ekonomikoa leuntzera jo behar dugu. Hain beharrezko dugun lan hori administrazioari dagokio; eta guri, euskaltegioi, ahalik eta zerbitzurik onena ematea eta ahalik eta arinen euskaraz komunikatzeko gaitasuna eskuratzten laguntzea.

Korrika 18 amaitu da; baina, han esan- dakoari kasu eginez, segi euskara elkarri ematen!!! ■

Atez atekoa ala bosgarren edukiontzia?

IÑAKI IÑURRIETA LABAIEN
KAZETARIA ETA ITZULTZAILEA

Gipuzkoan, badira hilabete batzuk atez ateko hondakin-bilketaren eta bosgarren edukiontziaaren inguruan sortu den eztabaida pil-pilean dela, herri batzuetan bereziki: Azkoitia, Zumaia, Legazpi, Bergara... Azken egunotan, atez atekoa ezarri berri duten beste zenbait herritan ere agertu dira ikuspegi kontrajarriak; Legorretan, esate baterako. Saihets asko ditu hondakinaren auziak: ekologikoa, ekonomikoa, soziala, politikoa, teknikoa... Lau aditurengana hurbildu gara, eztabaida horretan zeresana baduten lau aditurengana, argi pixka bat egiteko alderdi horiek osatzen duten bilbean, eta korapilo nagusiak non dauden jakiteko asmoz.



MIKEL IKATZATEGI ETXEGIA
Gipuzkoa Zero Zaborreko kidea

Azal ezazu labur: zergatik ez atez atekoari? Osasuna eta ingurumena kaltetzen dituen arazoari irtenbidea emateko balekoa delako bilketari dagokionez. Murriztu, Berrerabili, Birziklatu hierarkia aplikatu behar da lehentasunez. Birziklapenean eragiteko ezinbesteko faktorea, gaikako bilketa eraginkorra da. Hemen eta munduan % 70etik gorako gaikako bilketa-emaitzak lortzea posible dela ikusi dugu. Hor dago langa. Eraginkortasun nahikoa erakutsiko duen beste edozein bilketa-sistemari emango geniokeen bezala ematen diogu baiezkua atez atekoari.

Informazio- edo heziketa-lana oso garrantzitsua da hondakinaren arazoaren aurrean. Behar beste egiten al da arlo horretan?

Ez. Orokorrean egiten denak agintariek eskuak garbitzeko besterik ez du balio. Dena den, informazioa eta heziketa ezinbestekoak dira, baina ez nahikoak. Horrela da trafikoan, zergetan eta gauza guztietan. Hondakinak ez dira salbuespena. Kontzientziario hutsarekin gaikako bilketan ere ez dira lortuko baleko emaitzak.

Zure ustez, zergatik dago hainbeste jende atez atekoaren kontra?

Bi arrazoi nagusi:



- Gauza berriek zuhurtasuna eta beldurra eragiten dute.
- Beldur horiei hauspo emateko gezurrak zabaldu dituzte.

Jendeak atez atekoa zer den ezagutu eta normaltasun osoz bizi dela ikusten duenean, iritzia nabarmen aldatzen dira.

Zer alde on ikusten dizkiozu bosgarren edukiontzia?

Sistema oro har hartuta, bat ere ez, ez baitu gaikako bilketa eraginkorra bermatzen. Bosgarren edukiontziaaren sistemari lotuta zenbait elementu positibo azpimarra ditzakegu:

- Erabilzaileen jarrera positiboa. Herri-tar kontziente eta aktiboak dira, oso



ondo ari dira, zailtasunak zailtasun (giltza, distantzia...).

- Zabaltzeak adierazten du badagoela birziklapena beharrezkoa delako kontzientzia, nahiz eta tresnak ez balio. Organikoa gaika biltzeko beharra kontuan hartzea ere positiboa da.

Legazpin, adibidez, hasiak dira negoziatio-prozesuak Udalaren eta kontrako plataformaren artean. Izan al daiteke erdibideko formularik?

Segun eta zeren erdibideaz ari garen. Helburuez ari bagara, ez. Jakinik herritarren osasuna eta ingurumena zaintzeko gaika ahalik eta gehien bildu behar dela, zergatik bilduko dugu gaika % 55, % 80 posible bada?

Sistemaren ezaugarriei buruz ari bagara, ez dugu inolako eragozpenik ikusten. Atez atekoa ez da formula itxi bat, munduan zehar hainbat modutara egiten da. Helburuak ziurtatzen badira beste guztia molda daiteke. Herrira eta herritarrei egokitu behar zaie. Garbi dagoena da bi gauza ukiezin daudela, ezinbestekoak emaitza onak bermatzeko:

- Kutsatzeko eskubidea desagertzea da lehenengoa. Udal batek ezin du kalte egiteko aukera eskaini, arduragabekeria da hori.
- Pertsonalizazioa. Jendeari irakasteko, sortu beste ordainduz justizia egiteko,

eta nahita kalte egiten dutenekin beharrezko neurriak hartzeko. Beste gauza guztietan bezala, ondo eragiteko, pertsonalizatu egin behar da: argindarra, gasa, trafikoa...

aurreikusten behar gehien duten jende multzoen arazoak; adibidez, adinekoe-nak; itsuen elkarteak kexu dira kalean jarri behar diren tramankulu tinko nahiz mugikorrek traba egingo dietelako. Gainera, ez da jasotzen edukiontziekin baino zakar gehiago.



PATXI AMANTEGI


Atez Atekoaren Kontrako Plataformaren ordezkaria

Azal ezazu labur: zergatik ez atez atekoari?

Bilketa-prozedura garestitzen du (automatikoa izatetik eskuz egitera pasatzen da), zikinagoa da (zakarra paretetan zintzilik), deserosoa (egun bakoitzean gai bakarra), intimitatearen kontrakoa (zaborra identifikatua dago). Ez ditu

Ana Oregi Ingurumen sailburuak esana: "Atez atekoa ez da ez ona, ez txarra; ikusi behar da non eta nola jarri sistema bakoitza". Zer deritoxozu?

Erabat ados. Atez ateko sistema ezarri duten Kataluniako zenbait herri txikitik bezala bageunde, hau da % 5eko birziklatze mailan, ziur asko atez ateko bilketa-sistema izango litzateke egokiena. Inbertsio txikiago batez, emaitza berdina. Baina ez da hori gure kasua. Gipuzkoan badugu birziklatze-lanean nahiko ibilbide egina. Azpiegiturak eta baliabideak prest, gizartearen ohiturak birziklatze-kultura barnetatua. Beraz, egun, Gipuzkoan errazagoa eta merkeagoa da eraginkor izatea edukiontzien bitartez atez ateko sistemaren bitartez baino. Zero zabor filosofiak diotenari helduz: berrerabili. Nola egokitu filosofia horretan daukaguna bota eta berria erostea? Edukiontziak kendu eta posteak jartzea, alboko karga duten kamioiak kendu eta atzekoa dutenak erostea, eta abar, eta abar.



Atez atekoaren kontra dagoen jende askok aitzakiak erabiltzen omen ditu berez erosokeria edo kontzientzia ekologiko eskasa dena ezkutatzeko. Zer deritzozu? Atez atekoa ezartzen den herrietan ez da nabarmen igotzen gai bakoitzaren kopurua. Edozein kontzientziazio-kanpainaren ondorioz eragindako igoera sumatzen da (Usurbil eta Itsasondoko datuak adibide). Gipuzkoan, orain ditugun lau edukiontzien bidez, hondakin guztiaren % 32 gaika jasotzen dugu. Baina kontuan hartu behar dugu hori gaika jasotzeko hiru edukiontziren bidez biltzen dela (papera, beira eta plastikoentzako edukiontzien bidez). Organikoa bereizteko aukera izanez gero (edukiontzi marroia), beste % 40 bilduko genuke. Hau da, atez atekoaren emaitza berdinak izango genituzke, guztiaren % 70etik gora. Nork dio ez dugula egiten, eta zergatik? Kontzientziazioaren diskurtsoa ez da nahikoa, ereduak ere eragin handia du. Gizarteari esfortzu bat eskatzerakoan eredu izan behar du administrazioak. Prest al dira konpost plantak? Ez badira, nire lanaz jasotako organikoak zabortegia betetzen jarraituko du. Berdin plastikoak. Egun, jasotzen den plastikoak beteta ditu Gipuzkoan diren bi tratamendu-plantak. Zer gertatuko da gure diruaz plastiko guztia jasotakoan? Zabortegira? Bakoitzak berea egin behar du, baina etxea ez hasi teilatutik.

Zer alde on ikusten dizkiozu atez atekoari? Kontrol eta fiskalizazio errazagoa. Isunen bidea errazten du. Orain arte gizarte polizial batean bizi izan gara salatuta dutenek abantaila bat balitz bezala ikusten badute hori... guk ere bai. Hortik aurrera, aldekorik ez.



ENERITZ GURRUTXAGA

Garbitania, hondakinak gaika biltzeko eta kudeatzeko entitate publikoaren ordezkaria

Azal ezazu labur: zergatik bai atez atekoari?

Garbitaniak hondakinen arazoari irtenbide orokor eta integral egokienak ematen dizkion kudeaketa-sistema integralari esaten dio baietz. Ekonomikoki errentagarriena da eta bilketa selektiboan tasa handienak, osasunerako kalte gutxien eta lanpostu gehien sortzen ditu hondakinen kudeaketa-sistema honek. Egun, zero zabor hondakinen kudeaketa-sistemak ahalbidetzen du egokien hori guztia. Kudeaketa-eredu horrek, arazoaren irtenbidea iturburuan jarrita, emaitzarik egokienak lortzen ditu eta horri esaten diote baietz Garbitania osatzen duten hiru udalek. Gainontzeko guztiak, kudeaketa sistema horretan aplikatu ditzakegun teknikak dira.

Zer iruditzen zaizu sekuentzia hau: informatu-eztabaidatu-kontsulta egin-erabaki. Zertaz ari garen zehaztu beharko genuke: aplikatu beharreko aspektu teknikoak ala ereduak? Keaz ala mamiaz? Jendarteak jakin egin behar du jada zaborra arazo bat dela, eta horrela jarraituz gero ondorengoentzako berebiziko arazo bihurtuko dugula. Beraz, dugun arazoaren dimentsioaren jakitun izan behar dugu,



horretarako informazio gardenaz baliatuz. Arazoaren dimentsioa jakindakoan, eztabaida dezagun horri aurre egiteko dauden eredu inguruan, eta adostu ditzagun irizpideak. Egin ditzagun egin beharreko probak. Beraz, bai ikerkuntzari: inbertitu dezagun jakintzan eta garpenean. Konpara ditzagun emaitzak eta, horren baitan, eta ez beste ezeren baitan, adostu ditzagun ereduak. Ereduak adostuta, utz dezagun zer teknika aplikatu behar den horretaz dakitenen esku.

Zure ustez, zergatik dago hainbeste jende atez atekoaren kontra?

Desinformatu, arazoaren muina desitxuratu, egiaren erdia kontatu, tekniketari tematu eta arazoaren kudeaketa ereduaren eztabaidara sartu ez delako. Bistan da hondakinen gaia azaleko eztabaida antzuetan kokatu nahi dela, eztabaidatu beharrekoa kudeaketa-sistema eta ereduaren.

Egun bi eredu daude mahai gainean. Lehenak, irtenbidea hondakinen bizitza-zikloko azken pausoa jartzen du (tratamenduan), eta bigarren ereduak iturburuan (sorreran).

Legazpin, adibidez, hasiak dira negoziatio-prozesuak Udalaren eta kontrako plataformaren artean. Izan al daiteke erdibideko formularik?

Beti sakoneko gaiak aztertzen badira. Hondakinen arazoaren muina eta arazoa kudeatzeko beharrezkoa den sistemaren inguruko eztabaida-prozesua bada, bai, ez dugu zalantzarik adostasunetara helterik badenik. Aldiz, eztabaida itxura, estetika, erosotasuna eta horrelako gaietan galduz gero, ez zaio irtenbiderik ematen arazoari. ■

Ariketak80

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

I. Aukeratu bikote bakoitzeko forma egokiena, kontuan izan horretarako “Euskaltzaindiaren Hiztegia” artikuluan azaldutako irizpideak:

1. Saizarbitoriak gizon-emakumeen artean _____ mekanismoak deskribatzen ditu liburuan: gaizki ulertuak, bihozgabekeriak... batzuetan esajeratu samarturik bada ere.

ematen diren liskarren // gertatzen diren liskarren

2. _____ aurre hartzeko jardun sozialetarako Eusko Jaurlaritzaren laguntzak udalek bideratu ohi dituzte.

Drogazaletasunari // Drogozaletasunari

3. Eguneko Arretarako Zuiako Herri Zentroa udalaren zerbitzu publiko bat da eta Arabako Lurralde Historikoaren Gizarte Zerbitzu Sarearen _____.

barne dago // barnean dago

4. Konstituzioak bidea lehenbailehen egitea nahi du Mursik, Egipton diren liskarrak _____ amaitzeko.

ahalik eta azkarren // ahalik eta azkarrena

5. Hori garbi utzirik, Gramatika batzordeak esan behar du, _____, egokia aurkitu duela, Euskaltzaindiak orain arte batasunerako eman dituen arauak errespetatzen baititu.

lan honi dagokionean // lan honi dagokionez

6. Beharbada, baten batek esango du ezin direla munduko arazo guztiak mintegi batean jorratu eta _____, baina derrigorrezko erabaki batzuen inguruko hausnarketa sakonagoa burutzeko ahalegin berezi bat egin beharko genukeela iruditzen zait.

arrazoia du // arrazioa dauka

7. Moratalaz auzoan zegoen Loteria administrazio batek **lapurreta bat pairatu zuen** Gabonetako Zozketa izateko _____ geratzen zenean.

astebete // astebete bat

8. Oiz mendiko proiektuaren helburuak bi dira: ameztia babestea eta _____ basoko suteak saihestea.

azalera horretan // eremu horretan

9. BizkaiDay Empleo 2012 jardunaldian _____ zein gako diren funtsezkoak prestakuntza espezializatu eta tekniko egoki baterako.

eman zuten aditzera // eman zuten jakitera

10. Azpimarratzekoa da Aiur-veda izeneko medikuntzak 5.000 _____ eta Munduko Osasun Erakundeak mediku-sistema izaera onartzen diola.

urte dauzkala // urte dituela

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Ariketak 80

2. Bilatu eskuineko zutabeen hitz bakoitzari dagokion sinonimoa:

1	barreiatu		eremua
2	eskerga		gorazarre egin
3	omendu		koldarra
4	kemena		ospea
5	esparrua		hedatu
6	onespena		arduragabea
7	sumatu		ugaria
8	behinena		adorea
9	sona		itzela
10	oparoa		aztoratu
11	uzkurra		nagusiena
12	baldresa		oniritzia
13	asaldatu		ahaztu
14	atzendu		gutizia
15	apeta		hauteman

3. Osatu esaldiak aurreko ariketako hitzekin:

1. Euskal gizarteak euskararen alde duen «indarra eta _____» erakutsi duela azpimarratu zuen EAeko lehendakariak.
2. Egoitza osoan sabai puskak erorita zeuden han hemenka, hainbat paper lurrean barreiatuta zeuden eta ordenagailu batzuk falta zirela ere _____ zuten.
3. Arlo administratiboan lan _____ egin du; besteak beste, Legebiltzarreko administrazioa modernizatzeko planen arduraduna izan zen, bai eta azken urteotan herritarrei zuzendutako zerbitzuen sustatzaile nagusia ere.
4. Ildo horretatik, aurrezki kutxako presidentek ohartarazi zuen herritarrak laguntzea dela BBKren helburu _____.
5. Egungo egoera ulertu ahal izateko ez da hau _____ behar.
6. «Mugitzen garen _____ zabala dela deritzogu, eta gure asmoa edo erronka sendotzea eta hain ezaguna ez den lekuetan ezagutaraztea da; gazteentzat euskaraz eginiko aldizkari batek potentzialitate handia baitu».
7. Helburua argi dago: euskal irakurlearen ahalik eta _____ gehienak ase ahal izatea euskarazko eskaintza egoki baten bidez.
8. Legeak Legebiltzarraren _____ behar du oraindik.
9. Publizitateko sortzaileen artean hainbesteko _____rik ez dute irratirako lanek, baina gero eta indar handiagoa hartuko dutela aipatu zuten hainbat epaimahaitako ordezkariak.
10. Berri batek _____ ninduen herenegun egunkari honetan.

11. Gure herriaren izena daraman taldea munduan zehar _____ nahi du.
12. Arau gabeko bizimodua zuten, _____, fundamenturik eta zentzurik gabea.
13. Badirudi sinatzaileen erabakitasunak orain arte _____ jokatu duten hainbat estatu mugitzera bultzatu dituela.
14. Luze eta _____ idatzi du gizartearen nahiz gizakion pitzadurez, denboraren poderioz zauriak sortzeraino arraildu egingo diren mindura horietaz, alegia.
15. Emakumeen nazioarteko urtea izan zen 1975, eta Gabriel Arestiren ekimenez, Julene Azpeitia _____ zuen Euskaltzaindiak.

4. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena eta hutsunean sartu:

1. Ameriketara joan ziren ahaideen _____ izaten du gure amonak noizean behin; izan ere, izugarri maite ditu.
2. Belaunaren eginkizun nagusia _____ moduan jokatzea da, hau da, hanka osatzen duten bi hezur luzeen arteko –izterrezurraren eta tibiaren arteko– lotura egitea.
3. Han eta hemen polemika sor dezakeen lana eratu du Amaiak, baina, aurkeztu duen lekuan aurkeztu duela, dena izan da _____ eta laudorio.
4. Bizikletaz ibili garenean, han ikusi ditugu olibondo, harizti, gaztainondo, lizar, mahastiondo eta _____ ederrak.
5. Arauak zorrotzak badira ere, nola edo hala saiatzen dira erregimen totalitarioaren _____ estuari aurpegi ematen.
6. Tradizioari jarraiki, 11:00etan abiatu zen udal _____ berria elizaraino.
7. Hiriburutik 150 kilometrora ostegunean zabaldu zuten hobi handitik ehunka _____ atera dituzte bertan lanean ari direnek.
8. Medusa arruntek baino min eta _____ handiagoa sortzen dute mota horretakoek.

gomutamena / gomutapena

gorporazio / korporazio

gonde / gontz

gorbitz / gurbitz

gorpuzkin / gorpuzki

goralpen / gorespen

gorontz / gerruntze

gorrigune / gorriune

Soluzioak80

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

- I. 1. gertatzen diren liskarren 2. drogazaletasunari 3. barnean dago
4. ahalik eta azkarrena 5. lan honi dagokionez 6. arrazoia du
7. astebete 8. eremu honetan 9. eman zuten aditzera
10. urte dituela

2.

1	barreiatu	hedatu
2	eskerga	itzela
3	omendu	gorazarre egin
4	kemena	adorea
5	esparrua	eremua
6	onespena	oniritzia
7	sumatu	hauteman
8	behinena	nagusiena
9	sona	ospea
10	oparoa	ugaria
11	uzkurra	koldarra
12	baldresa	arduragabea
13	asaldatu	aztoratu
14	atzendu	ahaztu
15	apeta	gutizia

- 3.
1. Euskal gizarteak euskararen alde duen «indarra eta **kemena**» erakutsi duela azpimarratu zuen EAEko lehendakariak.
 2. Egoitza osoan sabai puskek erorita zeuden han hemenka, hainbat paper lurean **barreiatuta** zeuden eta ordenagailu batzuk falta zirela ere sumatu zuten.
 3. Arlo administratiboan lan **eskerga** egin du; besteak beste, Legebiltzarreko administrazioa modernizatzeko planen arduraduna izan zen, bai eta azken urteotan herritarrei zuzendutako zerbitzuen sustatzaile nagusia ere.
 4. Ildo horretatik, aurrezki kuxkako presidenteak ohartarazi zuen herritarrak laguntzea dela BBKren helburu **behinena**.
 5. Egungo egoera ulertu ahal izateko ez da hau **atzendu** behar.
 6. «Mugitzen garen **esparrua** zabala dela deritzogu, eta gure asmoa edo erronka sendotzea eta hain ezaguna ez den lekuetan ezagutaraztea da; gazteentzat euskaraz eginiko aldizkari batek potentzialitate handia baitu».
 7. Helburua argi dago: euskal irakurlearen ahalik eta **apeta** gehienak ase ahal izatea euskarazko eskaintza egoki baten bidez.
 8. Legeak Legebiltzarraren **onespena** behar du oraindik.
 9. Publizitateko sortzaileen artean hainbesteko **sonarik** ez dute irratirako lanek, baina gero eta indar handiagoa hartuko dutela aipatu zuten hainbat epaimahaitako ordezkariak.
 10. Berri batek **asaldatu** ninduen herenegun egunkari honetan.
 11. Gure herriaren izena daraman taldea munduan zehar **barreiatu** nahi dugu.
 12. Arau gabeko bizimodua zuten, **baldresa**, fundamenturik eta zentzurik gabea.
 13. Badirudi sinatzaileen erabakitakunak orain arte **uzkur** jokatu duten hainbat estatu mugitzera bultzatu dituela.
 14. Luze eta **oparo** idatzi du gizartearen nahiz gizakion pitzadurez, denboraren poderioz zauriak sortzeraino arraildu egingo diren mindura horietaz, alegia.
 15. Emakumeen nazioarteko urtea izan zen 1975, eta Gabriel Arestiren ekimenez, Julene Azpeitia **omendu** zuen Euskaltzaindiak.

4. 1. gomutapena 2. gontz 3. gorespen 4. gurbitz
5. gerruntze 6. korporazio 7. gorpuzki 8. gorriune


IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



INTERINEZ JAKIN-MINEZ

INAXIO LOPEZ DE ARANA
IDAZLE ESKOLAKO IKASLE OHIA



Interinezek: Non dira munduko altxorrik handienak, zuzendari? Urruneko lurraldeetan akaso?

Zuzendariak: Ez, ez, geure aurre-aurrean ditugu altxorrik handienak, baina behienetan ez diegu antzematen.

I. Zergatik galtzen ditugu eskura ditugun gauza asko? Behar beste xox ez dugulako agian?

Z. Bai zera! Duguna galtzeari diogun beldurratetik galtzen ditugu gauza asko, Interinez.

I. Zer da askatasuna? Bizitzan konpromisorik ez hartzea?

Z. Ez, Interinez. Norberak egin nahi ez dituen gauzak ez egitea da askatasuna.

I. Bestalde, askotan iruditzen zait etengabe egiten ditudala hutsak, ezertarako gauza ez naizela, alegia. Normala al da hori?

Z. Ez kezkatu, motel. Geldirik dagoen erloju batek ere egunean bi aldiz ematen du ordu zuzena.

I. Egia al da begietatik urruti dagoena bihotzetik ere urruti dagoela?

Z. Ez, hori gezurra da: zenbat eta begietatik urrutiago, orduan eta bihotzetik hurbilago daude itzali eta atzendu nahi ditugun sentimenduak.

I. Aspaldi honetan, zenbait ika-mika izan ditut sailburuordearekin, eta pentsatu dut harengandik ahalik eta gehien urruntzea beldur naizelako egunen batean ez ote nauen benetan sufriaraziko.

Z. Astindu beldur hori soinetik, motel! Sufritzeari diozun beldurra sufrimendua bera baino okerragoa da eta.

I. Oraindik bitarteko langilea naizen arren, maitasunaren bila hasi naiz. Bazterrik bazter nabil, baina ezin dut inon aurkitu. Zer egin dezaket?

Z. Maitasuna ez dago besterengan, norbere baitan baizik; geuk pizten dugu. Baina hori bai, besteren laguntza behar dugu pizteko.

I. Zuzendari, zer gertatzen zaio norberari, beste inor maitatzen duenean?

Z. Alferrrikako galdera egin duzu: maitatzen duzunean ez duzu zer gertatzen zaizun jakiteko batere premiarik, dena zure baitan gertatzen da eta. Iritsiko zaizu hori ere, motel, eta ez zaizu halako galderarik ernatuko.

I. Egia al da maitatzea arriskutsua dela? Zergatik ote?

Z. Bai, oraingoan asmatu duzu, bejondeizula. Maitasuna arriskutsua da, baina beti izan da horrelakoa: milaka urte dara-

matzate gizakiek elkarren bila eta, arriskuak gorabehera, elkar aurkitzen.

I. Txarra al da norberak bere gurari guztiak asetu nahi izatea?

Z. Bai, bai, oso txarra da hori: Jainkoak inor erotu nahi badu, dituen apeta guztiak betetzen lagunduko dio.

I. Barka ausardia, baina batzuek diote zu jakintsua zarela, eta beste batzuek, ordea, eroa. Zu zer zara gehiago, bata ala bestea?

Z. Hau da galdera petrala! Esango dizut zein den bien arteko desberdintasuna: jakintsua maitatzen duelako da jakintsu; eroa, aldiz, maitasuna zer den ondo dakiela uste duelako da ero. Erantzun dizut?

I. Bai, bai, noski. Azken galdera, zuzendari. Amodioa egin aurretik, zergatik laguntzen dio batak besteari erantzten, eta, egin ondoren, ordea, zergatik jantzen da bakoitza bere aldetik?

Z. Baina, baina, baina..., zer galdera klase da hori?! Tira, erantzungo dizut, galdera egin didazunez gero. Hara, bizitzan, Interinez, inork ez dizu lagunduko izorratuta ikusten bazaituzte, eta bai gustura lagunduko dizutela izorratu nahi bazaituzte. Argi geratu da? ■

Eskabide elektronikoa (eta 2)

XABIER AMATRIA, BEGOÑA AYERDI,
URTZI BARRENETXEA, IRENE FERNÁNDEZ, JOSEBA USKOLA
IVAPEKO ADMINISTRAZIO HIZKERAREN ATALA

Aldizkariaren 78. alean, Eusko Jaurlaritzaren tramitazio elektronikoa erabiltzen den eskabide-orria aipatu genuen, baita oraintsu arte indarrean egon den ereduari egin zekizkiokeen hainbat hobekuntza-eremu deskribatu ere. Bada, horretatik abiatuta, eredu berria atondu dugu, artikulu honetan aurkeztuko duguna.

Eredu zaharrean eragindako gaiaren arabera, aldaketak lau multzotan antolatu ditugu, handitik txikira antolatu ere: egiturarekin, testugintzarekin, esaldiarekin, edo lexikoarekin zerikusia dutenak.

Lehenik eta behin, egindako aldaketak ikusiko ditugu, sumario moduan laburtuta. Ondoren, idazki berria aurkeztuko dugu, eta aldaketak kontrol-fitxa batean jasoko ditugu.

1. Egitura

Eredu berriari begirada bat emanda, berehala atzematen da dokumentua beste modu batez antolatuta dugula. Izan ere, herritarrek jaso eta batzuetan bete behar dituzten dokumentuen egitura argia eta logikoa izatea ezinbesteko baldintza da, zer egin behar den ulertuko bada. Hori dela eta, bai dokumentuen egitura orokorra bai atalak egoki berezita dauden aztertu dugu. Egitura logiko eta argi goa erabiltzeaz gain, erreparatu dugu tituluak eta tarteko tituluak zein ataletako edukiak egoki idatzita dauden, argibideak eta eskabidean bete beharreko eremuak nahastu diren, eta atal bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu diren.

2. Testugintza

Landu dugun bigarren gai-multzoak testuak idazteko osagaiekin dauka zerikusia. Hortaz, hauei erreparatu diegu, besteak

beste: zerrendak, taulak, eta oin-oharrak erabili diren testuak arintzeko; paragrafoen luzera egokia den, eta ortotipografiako elementuak ondo erabili diren.

3. Esaldiak

Lehenik eta behin, esaldiak laburrak eta sinpleak diren aztertu dugu. Horrekin batera, mezu nagusia nola dagoen kokatuta. Ondoren, egitura pasiboak eta nominalizazioak neurritz erabili diren, tartekiak egoki kokatu diren. Azkenik, aditz ulerterrazak erabili diren.

4. Lexikoa

Multzo honetan, izenordainen erabilera egokia aztertu dugu, baita darabilzkgun hitzak ezagunak eta zehatzak diren eta, bukatzeko, ea laburdurak saihestu diren. Bada, aurreratu bezala, proposamenen markoa zehaztuta, gatozen orain eskabide-eredu berria aztertzeraz, egindako aldaketak banan-banan eta bere testuinguruan ikusteko.

Aurrera jarraitu baino lehen, ohartarazi behar dizuegu daukagun espazioa kontuan harturik, ezinezkoa dela eredu osoari egindako aldaketak eta hobekuntzak aurkeztea artikulu honetan. Hori dela eta, zuentzat interesgarrienak iruditu zaizkizkizgun osagaiak aukeratu ditugu. ■

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

SAILA
Salburuordetza
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE
Viceconsejería de
Dirección

Eskabidea PROZEDURAREN IZENBURUA

Eskatzailea*

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Izena* _____ Telefonoa _____
 Lehen abizena* _____ Bigarren abizena* _____
 Identifikazio-dokumentua* _____ Zenbakia* _____ Sexua* Gizona Emakumea

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena _____ Telefonoa _____
 Lehen abizena* _____ Bigarren abizena* _____
 Identifikazio-dokumentua* _____ Zenbakia* _____ Sexua* Gizona Emakumea

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala*

Posta bidezkoa

Helbidea* _____ Zk. _____ Sol. _____ Letra _____
 PK* _____ Udalerria* _____ Probintzia* _____
 Herrialdea* _____

Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza*

Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektroniko edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo duzu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektroniko edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Atalak egoki bereizteko, baliabide tripografikoak erabili dira:

- Atal bakoitza koadro batean sartu da.
- Izenburua nabarmendu da letarren eta fondoaren kolorea erabiliz.

Titularren eta ordezkarriaren eremuak marra batekin bereizi dira.

Tarteko tituluak letra xehez idatzi dira, letra larria irakurtzeko oso nekagarria baita.

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu diot, eta eman egin dit (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza eskatu diot, baina oraindik erantzunaren zain nago (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ez daukat diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten didan zigor penal edo administratiborik.
- Ez dut diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan lege-debekurik, beren-beregi sexu-diskriminaziotatik¹ lege-debekurik.
- Egunean ditut indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, arauz zehaztu bezala².
- Betetzen ditut laguntza hauek jasotzeko indarreko legediak ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹Emakumeen edo Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera
²1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatu ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak.

Argi utzi dugu erantzukizun bakoitzaren arduraduna zein den.

Egitura bereko aditzak mantendu dira eta denak orainaldian idatzi ditugu.

Edukien artean tartearik utzi ditugu irakurketa errazteko.

Adierazpen bakoitza bereizi dugu, esaldi laburretan.

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

- Nortasun-datuak
- Bizileku-datuak
- Unibertsitateko titulazioaren ziurtagiria

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

Bete beharreko eremuak era simple eta grafiko batez adierazita daude.

Errepikatzen zen testu komuna goiburuan kokatu dugu, behin bakarrik agertzeko.

Datu petsonalen babesa³ (DPBL)

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- Izena: Dagokion zuzendaritzaren DPBLaren fitxategiaren izena
- Non arautua: fitxategia sortzeko araua
- Titularra: Eusko Jaurlaritzako dagokion zuzendaritza
- Helburua: laguntza emateko espedienteak kudeatzea

Fitxategiaren berri eman zaio alde zurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita dauzka. Datu horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzako dagokion zuzendaritzarekin:

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Laguntzak behar bezala esleitzeko, Administrazio publikoak adierazi diren datuak erkatu ahal izango ditu eta berariazko egiaztapenak egin.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

³ Datu Pertsonalak Babesleari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak –DPBL– xedatutakoa betez.

Bete beharreko eremuak era sinple eta grafiko batez adierazita daude. Horrela hartzaileak argi dauka zer den sinaduran idatzi beharrekoa.

Zerrenda erabili dugu testua arintzeko eta esaldi deskriptibo bat zerrenda aurkezteko.

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenan ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularri* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkariaren duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: *Nire kudeaketak* guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira.

Hau sartzeko, *onartutako ziurtagiri elektronikoa* bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatzat joko sa, izapidea egintzat emango da eta prozedura aurrera egingo du.

Argibideetako instrukzioak aginterazko aditzen bidez eman ditugu.

Herritarrengana zuzentzean, 2. pertsona erabili dugu, hurbiltasuna adierazteko.

EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA, ohar interesgarri batzuk I

URTZI BARRENETXEA

IVAPEKO ADMINISTRAZIO HIZKERAREN ATALA

Elkarrek, Elhuyarrek eta Euskaltzaindiak elkarlanean argitaratu zuten iaz *Euskaltzaindiaren Hiztegia* lana; bertan, Hiztegi Batuko 20.000 hitz daude jasota. Argitalpen interesgarria da zalantzarik gabe; izan ere, hitzen forma arautuaz gain, adiera ezberdinen eta erabilera esparruen berri ematen digu. Horrez gain, adibideen laguntza dauka hitz bakoitza nola erabili behar den zehazteko. Euskararen normalkuntzarako argitalpen baliotsua dugu, pausu bat gehiago suposatzen baitu hizkuntzaren estandarizazioan.

Bestalde, aipatzekoak dira hainbat sarre-ratan aurki daitezkeen oharrak. Horieta-riko asko Hiztegi Batuaren webgunean jasota daude jada; beste batzuk, aldiz, nahiko ezagunak dira erabileraren poderoz gero eta barneratuago ditugulako.

Dena dela, hainbat kontu gogorarazte ondo datorrelakoan, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* jasotako ohar horiek bildu eta hona ekartzea erabaki dugu.

aditzera eman *du* ad. *Jakitera eman* baino egokiagoa da

Alkatearen aginduz jakitera ematen da.	Hobe ▶	Alkatearen aginduz aditzera ematen da.
--	---------------	--

ahalik edo **ahalik eta**. Adizlagunekin hobeto *ahalik (eta) maizena, ahalik sarriena*, etab.

Izapideak ahalik (eta) lasterren egitea komeni da.	Hobe ▶	Izapideak ahalik (eta) lasterrena egitea komeni da.
--	---------------	---

albo eta **aldameneko**. Ez dute *eskuineko, ezkerreko* gisako mugatzaierik onartzen: horrelakoetan *alde* erabiltzen da.

Zulo batzuk ditu eskuineko alboan.	Hobe ▶	Zulo batzuk ditu eskuineko aldean.
------------------------------------	---------------	------------------------------------

aldameneko. Hitz elkarketako lehen osagai bezala ez da erabiltzen: horretarako, *albo* erabiltzen da.

Ekoizpen-prozesu horretan, aldameneko-produktu bat sortzen da: anhidrita.	Hobe ▶	Ekoizpen-prozesu horretan, albo-produktu bat sortzen da: anhidrita.
---	---------------	---

antzeman. Ezezkoetan, *ez diot antzik eman* eta *ez diot antzeman*, biak onartzen ditu.

Zer zenik inork ez zion antzik eman.	=	Zer zenik inork ez zion antzeman.
--------------------------------------	----------	-----------------------------------

arnasa. *Arnas* forman erabiltzen da hitz-elkarketako lehen osagaia denean.

Arnasa aparatua bidez, gas trukaketa bat egiten da.	Hobe ▶	Arnas aparatua bidez, gas trukaketa bat egiten da.
---	---------------	--

arrazoi. *Arrazoi*a daukazu / *arrazoi(a) duzu* joskeren artean, Euskaltzaindiak *arrazoi(a) duzu* hobesten du.

Mariak arrazoi(a) dauka gauza batean, bederen.	Hobe ▶	Mariak arrazoi(a) du gauza batean, bederen.
--	---------------	---

astebete. Euskaltzaindiak, *astebete bat egon zen gaixorik* esapideen eta kidekoen ordez, *astebete egon zen gaixorik* eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du.

Atzerriko 23 ikaslek astebete bat egin dute Elgoibarren.	Hobe ▶	Atzerriko 23 ikaslek astebete egin dute Elgoibarren.
--	---------------	--

azalera. Neurria adierazteko erabiltzen da soilik; bestetarako, *azal* (leun, zakar...), *gainazal*, *eremu* (lurralde batena, adib.) etab. daude.

Nitrogenoa erantsiz, zenbait materialen azalera gogortzea lortu dute.	Hobe ▶	Nitrogenoa erantsiz, zenbait materialen gainazala gogortzea lortu dute.
---	---------------	---

barna. *-n barna* (mendian barna) hedatuagoa da *-tik barna* (menditik barna) baino.

Kaletik barna goaz biok.	Hobe ▶	Kalean barna goaz biok.
--------------------------	---------------	-------------------------

barne. Euskaltzaindiak, *-en barne egon* esapideen eta kidekoen ordeztan, *-en barnean egon* eta kideko esapideak erabiltzea gomendatzen du.

Sistema global baten barne daude erakundeak.	Hobe ▶	Sistema global baten barnean daude erakundeak.
--	---------------	--

berri. *Gol berri bat sartu du* eta kideko esapideen lekuan, Euskaltzaindiak *beste gol bat sartu du* eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du.

Espezie berri bat aurkitu dute Salburuan: uzta-sagua.	Hobe ▶	Beste espezie bat aurkitu dute Salburuan: uzta-sagua.
---	---------------	---

disolbatu. Kimika ez den beste eremuetan hobe *desegin, sakanatu, urtu* etab.

Lantegia itxi den arren, langileen elkarteak ez da disolbatu.	Hobe ▶	Lantegia itxi den arren, langileen elkarteak ez da desegin.
---	---------------	---

droga. Hitz elkarketako lehen osagai gisa *droga* forma dagokio, ez **drogo*.

Depresioari aurre egiteko zenbait drogo-terapia ikertzen ari dira.	Hobe ▶	Depresioari aurre egiteko zenbait droga-terapia ikertzen ari dira.
--	---------------	--

eduki. *Aitaren antza zuen, hogeit urte zituen* edo *egun ederra izan dugu* bezalako lekuan, Hegoaldean, batez ere gaur egun, *eduki* aditza erabiltzeko joera dago: *aitaren antza zeukan, hogeit urte zeuzkan* edo *egun ederra eduki dugu*. Euskaltzaindiaren gomendioa da *izan* laguntzailearen alde egitea horrelakoetan.

Jantzi horrekin jaun britainiar baten antza dauka.	Hobe ▶	Jantzi horrekin jaun britainiar baten antza du.
--	---------------	---

Ikerketen arabera, Amazonas ibaiak 11 milioi urte dauka.	Hobe ▶	Ikerketen arabera, Amazonas ibaiak 11 milioi urte ditu.
--	---------------	---

egon. Euskaltzaindiak, *boni dagokionean* esapideen eta kidekoen ordeztan, *boni dagokionez* eta kideko esapideak erabiltzea gomendatzen du, *noiz* galderari erantzuten ez diotenean.

Garunaren garapenari dagokionean, Haur Hezkuntza askoz inportanteagoa da Unibertsitatea baino.	Hobe ▶	Garunaren garapenari dagokionez, Haur Hezkuntza askoz inportanteagoa da Unibertsitatea baino.
--	---------------	---

elur. Elurra ari izan eta elurra izan, aspektu puntukaria denean soilik erabiltzen dira (*elurra ari du mendian, elurra da mendian*); *elurra egin*, berriz, aspektua ez puntukaria denean (*iaz elur asko egin zuen*).

Kontuz bidean, elurra egiten du eta.	Hobe ▶	Kontuz bidean, elurra ari du eta.
--------------------------------------	---------------	-----------------------------------

eman. Euskaltzaindiak, *neska-mutikoen artean ematen diren liskarrak* esapideen eta kidekoen ordeztan, *neska-mutikoen artean gertatzen diren liskarrak* eta kideko esapideak erabiltzea gomendatzen du.

Asteburu honetan liskar gogorak eman dira Mendebaldeko Saharako Dakhla hirian.	Hobe ▶	Asteburu honetan liskar gogorak izan dira Mendebaldeko Saharako Dakhla hirian.
--	---------------	--

emendatu. Ez du *zuzendu* esan nahi, *gehitu* baizik.

Baremazio-okerrak emendatu ahal izateko, eskabidea aurkeztu behar duzu.	Hobe ▶	Baremazio-okerrak zuzendu ahal izateko, eskabidea aurkeztu behar duzu.
---	---------------	--

erdara. *Erdal* forma dagokio hitz-elkarketako lehen osagaia denean.

Benjamin Tuterakoa dugu Euskal Herriko erdara idazle famatuenerarikoa bat.	Hobe ▶	Benjamin Tuterakoa dugu Euskal Herriko erdal idazle famatuenerarikoa bat.
--	---------------	---

ezberdin. *Udaleko alderdi ezberdinak* eta kideko esapideen lekuan, Euskaltzaindiak *udaleko alderdi politikoak* eta kidekoak erabiltzea gomendatzen du.

Hezkuntza arloko eragile ezberdinentzako ikastaroak antolatzen dira.	Hobe ▶	Hezkuntza arloko eragileentzako ikastaroak antolatzen dira.
--	---------------	---

funditu. *Bonbilla funditu* / *bonbilla erre* esapideen artean, Euskaltzaindiak *bonbilla erre* hobesten du.

LED lanparek 100.000 argi-ordu eskain ditzakete funditu aurretik.	Hobe ▶	LED lanparek 100.000 argi-ordu eskain ditzakete erre aurretik.
---	---------------	--

isolatu. Fisikaren arlotik kanpo hobestekoak dira *bakartu, bakandu*.

Israelek erabat isolatu du Gaza lurralde okupatua.	Hobe ▶	Israelek erabat bakartu du Gaza lurralde okupatua.
--	---------------	--

LinkedIn® : gizarte-sare profesionala

IDOIA TORREGARAI

UEUKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

UXUNE MARTINEZ

UEUKO IKT ARLOKO KOORDINATZAILEA

Gizarte-sareak gaur eguneko komunikazio-tresna ohikoak bihurtu dira.

Facebook, Twitter, Tuenti eta bestelakoak ezagunak egiten zaizkigu, entzueraz bada ere. Baina bada Interneten harreman profesionalen esparrua jorratzen duen gizarte-sarea, LinkedIn.

LinkedIn (www.linkedin.com) 2003an kaleratu zen gizarte-sarea da. Haren bidez gure lan-esparruarekin zerikusia duten aditu, profesional, ikertzaile edo enpresekin harremanetan jar gaitezke. LinkedInek bitartekari-lanak egiten ditu, gure jardun profesional berdina edo antzekoa duten norbanakoak, taldeak eta enpresak ezagutzeko aukera ematen digu eta haiekin harremanetan hasteko bideak eskaini. Funtsean, harreman profesionalak bideratzeko zerbitzua da, doakoa edo ordaindu beharrekoa. Horrez gain, informazioa partekatzeko eta gai jakinen inguruan eztabaida bultzatzeko gunea ere bada.

Merkatu anglosaxoi zein espainiarrean harreman profesionalak egiteko erabiltzen den sare profesional nagusia bihurtu da. Egon badaude mota horretako bestelako zerbitzuak, adibidez, Xing (www.xing.com), Alemanian nagusitu dena, eta Viadeo (www.viadeo.com), Txina eta Indian gailendu dena. 2013ko urtarrilean, 200 milioi

erabiltzailek eta bi milioi eta erdi enpresak emanda zuten izena LinkedInen. 2012an zehar, hilero batzaz beste 47 milioi bisitarik erabili zuten zerbitzua.

Zerbitzuaren erabilera kopuruak adierazgarriak badira ere, zertan datza LinkedInen arrakasta? Haren onspenaren arrazoi nagusiak, besteak beste, bi dira: sinpletasuna eta seriotasuna. Zerbitzua erabilerraza da, eta izen-emate prozesua zein gainerako funtzioak ere pauso sinplez osatuta daude. Zerbitzu serioa da, harreman profesionalak bideratzeko helburua duena, ez da aisialdi-gaiez hornitzen. Egun, enpresa handiek langileak hautatzeko erabiltzen dute LinkedIn, eta horrek ospe handia eman dio sare honi.

Erabiltzaileak izena eman eta kontu bat sortu behar du. Kontu horren oinarria erabiltzailearen profila da, gure aurkezpen-gutuna, gutaz jakin nahi duenak irakurriko duena. Beraz, profila zehazteari denbora eman behar zaio. Edita-



tu eta informazioa txertatzean jarri nor zaren, zer egiten duzun (ikasi, lan egin, ikertu) eta zein den zure esparru profesionala esan. Eman zurekin harremanetan jartzeko argibideak: helbide elektronikoa eta zure lanarekin zerikusia duten orrialde pertsonalak ere. Bestalde, gehitu argazki bat, baina ez edonolako argazkia; utzi albo batera ezkontza horretako argazkia edota talde batean zauden hori. Hortaz, argazki argia jarri, aurpegia ondo ikusten zaizun bat eta atzealde neutro batekin, nor zaren erakusteko modukoa.

Behin profila landuta, sarea ireki behar da, harremanak landu behar dira. Zelan? Kontaktuak lortuz, hau da, interesatzen zaizkigun pertsona horien kidetza lortuz, Facebooken “lagunak” edo eta Twitterren “jarraitzaileak” hautatzen diren antzera. Kontaktuak egiteko, eskaera bat bidaltzen zaie erabiltzaileei mezu bidez, era automatikoan edo pertsonalizatuan. Zerbitzuak berak mezuak

bidaltzeko modu automatikoa iradokitzen du, ezagutu dezakegun jendea gomendatzen digu eta klik bakar batekin gonbit-mezu automatikoa bidaltzeko aukera ematen du. Modu horretan kontaktu kopuru handia lor daiteke, nahiz eta helburua ez den kantitatea, kontaktu egokiak lortzea baizik. Beraz, harreman profesionala helburu izanda, hautatu nori bidali nahi diozun eskaera eta idatzi egiozu mezua, eta azaldu zergatik nahi duzun berarekin harremanetan egon. Ez zaitetz izan kontaktu-biltzaile soila, hasi zaitetz apurka-apurka eta izan zaitetz pertsonala, saihestu bidalketa automatiko masiboak.

Ondoren, ezagutarazi zeure burua talde batean parte hartuz. Profilean aurkezpen formala egin dugu eta lantzen ditugun gaiak aipatu. Horri buruz dakiguna erakusteko bide ezin hobea da gure esparruko gai jakin bati lotutako taldeetan parte hartzea. Taldeak informazioa par-

tekatu, zalantzak argitu eta eztabaidatzeko guneak dira. Partaidetzak hainbat abantaila ditu: alde batetik, gai baten inguruan dakiguna erakusteko parada ematen du; bestetik, pertsona interesgarriak ezagutzeko tokia da, gure zirkuluetatik urrun dauden taldekideak eta haien kontaktuak ezagutzeko bidea baita.

LinkedIn esparru profesionalean harremanak lantzeko tresna eraginkorra da, baina Interneteko zerbitzu bat izanik, ezin dugu hau ahaztu: sarean ez dago testuingururik. Beraz, mezuak idazterakoan eta taldeetan parte hartzeko orduan, idazkera eta mezuen tonua zaindu egin behar dira. Gogoratu, jasotzaileak edo irakurleak ez duela gure aurpegia ikusten, ezta gure keinuak ere; beraz, arreta jarri idazten duzun horretan komunikazio eraginkorra bideratzeko. ■

Hiru kafe



LUTXO EGIA

IDAZLEA

Azken aldi honetan herrian ugari diren babo horietako bat sartu da tabernara. Ez du buru-gaixotasunik edo antzekorik. Ez dakit zehatz-mehatz zer duen. Baboa da eta kitto, Euskalteleko tixerta koloregabeturik soinean daraman babo hutsa. Baliteke horrela geratu izana gorputzean kaka piloa sartzeagatik.

Baboa itsu hurreratu zait. Dirua atera du praktako poltsiko batetik, eskuin eskua zabal-zabalik duelarik niri erakutsi eta hiru kafe hartzeko adina daukan galdetu dit, itsu galdetu ere, ikusiko ez banindu bezala, ni barik honezkero barran hiru kafeak ikusiko balitu bezala. Eta behar-bada horixe gertatzen zaio: barra gainean ikusten ditu hiru kafeak.

–Hiru!

Zatarra, ilajea koipetsu eta hortzak galtzen hasita. Zahar itxurako gaztea. Txanpon mordoa kokatu ditu barran, lerro-lerro, nik errazago zenbatzeko. Bi, bost, hamar eta hogeitazentimoko txanponak dira. Txatarra, ez beste. Herritar kupituek emango zizkieten. Baboa bera baino baboagoak dira guztiak, jakina.

Gezurra badirudi ere, txatarraren munta kalkulatzeko hasi naiz. Neke handiagoa ematen dit txanponak zenbatzeko zorio-neko hiru kafeak jartzeko baino.

–Kafe bi hartzeko beste daukak, eta hamahiru zentimo soberan.

–Hiru kafe!

Aurpegia zeharo hanpaturik dauka. Une batetik bestera zapart egin lezake eta taberna zorne kirasduz bete. Pentsatze

hutsak goragalea dakarkit. Esango nuke egunero hamaika pilula irensten dituela. Ansiolitiko mordoa, litekeena. Ansiolitikoek eurek ekarri behar diote amaierarik ez duen logura hau. Eta logurak kafe beharra.

Tabernako beste muturrean, begiak mindurik eta kopeta zimur, beste morroi bat dago. Kaier beltz bat eta *La Otxoaren* biografia utzi ditu barran ebakia eskatzeaz bat. Lantzean behin etortzen da. Beti ekartzen ditu kaiera eta liburu bat. Ebakia eskatu ondoren, kaieran idazteari edo irakurtzeari ekiten dio. Toki honek, ordu honetan, lasaitasuna eskaintzen omen dio. Ez du ematen morroi eskasa denik.

Ezerk ez du sekula asaldatzen morroia. Mahai batean jesartzen da eta idazten edo irakurtzen du ebakia edaten duen bitartean. Tabernak ematen omen dion lasaitasuna transmititu egiten du. Bere baitara biltzen da munduan ezer gertatuko ez balitz bezala. Gaur, aldiz, erne dabil babo honen eta bion artean zer gertatuko.

–Hiru!

–Ezetz ba, dedio! Gura baduk, bi.

Baboekin, mozkorti eta lausengariekin lez, amore eman gabe jokatu beharra dago. Zorrotz. Kalaka barik.

Hiru nahi dituela dio. Horretan ere badira diferenteak baboak.

–Utzidan falta zaidan dirua. Bihar itzuliko dinat.

–Hoa zakurraren ipurdira!

–Gauean, orduan.

–Ezetz!

–Zergatik?

–Haatik, koño!

Baboa isildu egin da. Burua makurtu du. Azkenean konprenitu du zer dagoen.

Etsiturik, barraren beste muturrera begiratu du.

–Emadazu euro bat! –oihu egin dio morroi lasaiari.

Gizonak zeharo harrিতa begiratu dio baboari, orain arteko elkarrizketaren hitz bakar bat ere entzun ez balu bezala. Baina gorra izanda ere entzungo zukeen. Gu geu besterik ez gaude tabernan. Musikarik ere ez dago.

–Ezta pentsatu ere, babo hori!

Neurriz kanpoko erantzun bortitza izan da, eta ustekabekoa. Dirudienez, morroi lasaia ez da horren lasaia.

Baboa izu-ikarari begiratu dit. Kaleko bidea bilatu du bere begiak niretatik aldenitu gabe, konplizitate eske edo. Ikaraturik dago, zinez. Nire begiek, berriz, morroiarenekin egin dute topo. Bategitean hari ere sumatu diot konplizitatezko keinu bat. Gorriturik du aurpegia, suminak gorriturik.

Segundo gutxiko kontua izan da. Morroi lasaia berehala bihurtu da bere zereginetara. Idazten hasi da. Batek daki zeri buruz idatzi behar duen. Hemen gertatu berri denari buruz, esango nuke. Baboaz eta nitaz, alegia. Baina zer daki morroiak! Hamar edo hamabost minutu barru, egunero legez, baboa atzera ere izango da hemen. Falta zaizkion zentimoak aldean dakartzalarik bueltatuko da, hirugarren kafea hartzeko adina ekarriko du. Eta nik hiru kafeak zerbitzatuko dizkiet, bata bestearen ondoan jarrita.

Eta orduan esango dit:

–Trilero baten godaletak ematen ditenez, ezta?

Nik baietz erantzungo diot eta, bezeroak behar bezala agertzen hasiko direnez, hozkailuak betetzeari ekingo diot. Larunbatero bezalaxe. Baina ez da beti horrela izan. ■

Arrue ikerketa 2011: nondik norakoak eta ondorio nagusiak

PABLO SUBERBIOLA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERREKO TEKNIKARIA ARRUE PROIEKTUAN

2013ko lehen hiruhileko honetan ARRUE 2011 ikerketaren emaitzen zabalpenean ari gara. Tartean *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren gonbita izan dugu, baita gogo onez onartu ere. Jarraian beraz, ikerketa honek zer aztertzen duen eta 2011ko saioaren emaitza eta ondorio nagusiak zein diren laburtu asmo duen artikulua duzue. Gaian gehiago sakondu nahi duenak informazioa kontsulta dezake Soziolinguistika Klusterraren webgunean (www.soziolinguistika.org)

ARRUE PROIEKTUA: SORRERA ETA GIDARITZA

ARRUE proiektua ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren inguruko ikerketa-ildo bat da. 2004. urtean sortu zuten Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta ordutik hona lankidetzan garatu da urteroko hitzarmen bitartez.

Jarraipen Batzorde bat du ARRUE ikerketak bere lanaren gidari. Bertan bildu izan dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkariak eta Soziolinguistika Klusterrakoak eta horiekin batera, ikasturtez ikasturte lankide izan diren erakundee-tako ordezkariak: besteak beste, Ulibarri programako Normalkuntza Teknikariak (HNT), IRALEko lankideak eta Hezkuntza Saileko aholkulariak. Aipatu erakundeez gain, 2004tik honako ibilbidean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikastetxe askoren lankidetzaren bitartez ere izan du proiektuak.

2010-2011 ikasturtean ARRUEren egitekoa Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundearekin (ISEI-IVEI) bateratu zen eta geroztik erakunde hauek osatzen dute Jarraipen Batzordea: Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua, Soziolinguistika Klusterra eta ISEI-IVEI. Ikerketaren zuzendaria, UPV-EHUko irakasle eta SL Klusterreko kide den Iñaki Martinez de Luna irakaslea da.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

Aipatu bezala, ARRUE ikerketaren egiteko nagusia da EAEko ikasleen eskola giroko erabilera aztertzea. Fenomeno horren azterketa orokorraren baitan, dena den, baditu finkatuak helburu zehatzagoak ere. Ondorengo hirurak nabarmenduko genituzke:

- a) EAEko ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilerak –eta bereziki, euskarazko jarduna– zer-nolakoak eta zenbatekoak diren aztertzea.
- b) Erabilera horien gorabeherak ongien iragartzen dituzten faktoreak identifikatzen saiatzea.
- c) Hori guztia kontuan izanik, euskararen erabilera (eskola-munduan) normaltzeko egiten diren ekinaldiei etekirik hoberena nola atera pentsatzeko eta adosteko ebidentzia enpiriko garrantzitsua bildu eta sistematizatzea.

2011KO DATU JASOKETA: EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK (ISEI-IVEI)

2004tik 2010era bitartean ARRUE proiektuan jaso diren datuak ikastetxeekin lankidetzan zuzenean edota Ulibarri programaren bitartez jaso dira, antolatutako datu jasoketetan borondatez parte hartzea erabaki duten zentroetan. Arrue proiektua urtez urte berritzen joan den lankidetzaren bitartez garatu da,

eta beraz, urtero joan gara finkatzen nola eman hurrengo pausoak metodologiko-ki, zein datu jasoketei dagokionez.

Oro har, 2010a bitartean hiru datu jasoketa garrantzitsu egin dira EAEko ikastetxe batzuetan, 2005-2006 ikasturtean, 2007-2008 ikasturtean eta 2008-2009an, gehienbat LMH6ko (11-12 urte) ikasleen eskolako erabilera aztertuz. Lehen urteotako azterketen emaitzak euskaraz eta gaztelaniaz kontsulta daitekeen argitalpen batean jasota daude (*Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*, 2009).

2004tik 2010era bitartean egindako azterketen ondoren, 2010-11 ikasturtean proiektuaren garapena ISEI-IVEI erakundearekin batera garatzen hasi ginen, gorago aipatu bezala. Horri esker egin ahal izan da 2011ko datu jasoketa zabala EAEko ikastetxe guztietan, eta jasoketa horretan oinarritu dira hemen aurkezten ditugun analisiak.

Konkretuki, 2011. urtean ARRUEko datuak ISEI-IVEIk bideratzen duen *Ebaluazio Diagnostikoa* probaren baitan jaso ziren, EAEko ikastetxe publiko zein itunpeko ikastetxe guztietan: LMHko 4. mailan (9-10 urte) eta DBHko 2. mailan (13-14 urte). Ondorengo taulan zehazten dira datu-jasoketaren kopuruak:

	Ikastetxeak	Taldeak	Ikasleak
LMH4	522	986	18.636
DBH2	329	865	17.184

IKERKETAREN ONDORIOAK: BOST ONDORIO LABURPEN MODURA

Hasieran aipatu bezala, artikulu labur honek 2011n egindako Arrue ikerketaren berri laburra eskaini nahi du, eta beraz ondorioen atal honetan ere labur jardungo gara. Informazio osatuagoa nahi duenak ikerketaren emai-

tzen txosten osoa kontsulta dezake Soziolinguistika Klusterreko webgunean (*Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. LMH4ko eta DBH2ko ikasleak (EAE), Emaitza nagusien txostena*).

Txosteneko ondorioetan sartu aurretik, Soziolinguistika Klusterrarentzat eta hezkuntzako eragile askorentzat ondorio garrantzitsuena ikerketa hau egin ahal izatera iritsi izana da; datuak eskuan izatea. Arrueren ibilbidea aztertzen duenak ikus dezake 2011ko datuekin ziklo bat itxi dela, eta beste bati eman zaiola hasiera. Ziklo berri honetan garrantzitsuena da hezkuntza arloko eragilei zein gai hauek ikertzen dituzten unibertsitateko taldeei datuak eskaini ahal izatea.

Gorago aipatu den moduan, 2004. urtetik 2010era bitartean hainbat urrats eman dira Arrue ikerketan datu jasoketa mailan eta garapen metodologiko eta kontzeptual mailan. Dena den, 2011koa izan da lehen aldia EAE osoko ikasleen datuak aztertu ahal izan direna (aipatu bi ikasmailetan). Alde horretatik, ez daukagu beste urteetako datu berdinekin alderatzerik, eta horrek zuhurtzia eskatzen digu datuak irakurtzeko garaian. Bestalde, jasotako datuen ezaugarrien aldetik, bi gauza nabarmenduko genituzke: bata, ikasleen eskolako erabilera datuak ikasleek galdetegi bidez aitorturikoak direla. Bestea, ikasleen “eskola giroko hizkuntza erabilera” esaten dugunean, eskolaren baitan erabilera ezberdin ugari egon litezkeela, eta ikerketa honetarako lau erabilera aztertu direna batez ere: ikasleen arteko erabilera gela barruan ari direnean, ikasleen artekoa jolaslekuan daudenean, ikasle eta irakasleen artekoa gela barruan eta ikasle eta irakasleen artekoa gelatik kanpo.

Horiek esanda, gatozen ikerketaren ondorio orokorretara. Hemen, bost ondorio nabarmentzera mugatuko gara:

BAT. Datuek erakusten dute eskolak lortzen duela ikasleek eskolan beraien artean

euskaraz gehiago erabiltzea gizarteko beste eremuetan erabiltzen dutena baino (familian edo kalean baino, esate baterako).

BI. Euskarazko erabilera altuago hori gelan gertatzen da jolaslekuan baino sarriago, eta askoz gehiago LMH4ko ikasleen artean DBH2koen artean baino. LMH4ko ikasleen erabilerak nabarmen aldatzen dira gaztelaniaren aldera gelatik jolaslekura pasatzean. Eta DBH2ko ikasleen euskarazko erabilerak baxuagoak dira LMH4koenak baino, bai gelan eta bai jolaslekuan.

HIRU. LMH4n eskolak lortzen du eremu babestu bat sortzea ikasleei aukera ematen diena euskaraz gehiago erabiltzeko gizartean baino. Ikasleak helduago egin ahal, datuek erakusten dute konbergentziarako joera bat ematen dela gizartean nagusi diren hizkuntza erabileren aldera. Hau da, ikasle helduagoek (13-14 urte) beren eskolako erabilerak gizartean ematen diren erabileren antzekoago egiten dituzte, eta ondorioz beren euskarazko erabilerak baxuagoak dira 9-10 urtekoenak baino.

LAU. Hizkuntza eruditik harago ere eskolak, ikastetxeko giro euskalduna areagotuz, asko eragin dezake ikasleen hizkuntza jardunean.

BOST. Datuek eta analisisiek “eskolaren mugak” agerian jartzen dituzten moduan, ikasleen euskarazko erabilera sustatzeko bideak eta aukerak ere erakusten dituzte; besteak beste, eskola-orduz kanpoko jarduera antolatuen eremuan daudenak.

Bukatzeko, aipatu 2011koa izan dela ikasleen eskola giroko erabilera modu honetan neurtu dena, eta asmoa litzatekeela adin bereko ikasleen artean erabilerak neurtzen jarraitzea ISEI-IVEIren Ebaluazio Diagnostikoa probaren bitartez, bi urtez behingo edo lau urtez behingo maiztasunarekin. ■



Zakurkeriak

BERTOL ARRIETA

IDAZLEA

Gorrotu nuen platanoa jaterakoan egiten zuen soinua. Eta sudur-zuloetatik ateratzen zitzaizkion iletxo haiek, eltxo zikinen antenen antzekoak. Ezin nituen jasan. Noiz –eta batez ere nola arraio– maitemindu nintzen gizon harekin? Soka beraren bi muturrak omen, maitasuna eta gorrotoa. Ezin azaldu, bestela, nola bukatu nuen Antxonekin sukaldea eta ohea konpartitzen.

Ez dut esango hariaren alde batetik besterainoko bidea egitearen erru osoa Sandokanek izan zuenik, baina parte handi batena bai, seguru. Gainbehera joan baitzen lehendik herren zebilen harremana, senarrak zakur alu hura ekarri zuenetik. Sandokan, fox-terrier txiki higuigarri hura.

–Zertarako nahi duzu zakur bat orain?
–Bakarrik sentitzen naiz –erantzun zidan putakumeak.

Ez ninduelako maite gorrotatzen ote nuen, ala gorrotatzen nuelako ez ninduen maite? Zer axola zion. Eta zakurrari egiten zizkion mimo haiek guztiak, lazta-nak, musutxoak? Zer ziren? Noiz izan ote zen senarrak *ni* ukitu ninduen azken aldia? Jeloskor jarri nahi ote ninduen?

Gau batean, Sandokanekin agertu zen ohatzean.

–Sofara joan beharko duzu berarekin lo egin nahi baduzu –esan nion zakar, oihera ez egiteko nire burua larregi behartuz.

Ohetik joateko behar zuen aitzakia eman nion.

Etxea konpartitzen zuten bi ezezagun bihurtu ginen, gosaltzerakoan soilik

topo egiten zutenak. Kafea egiteko ere bakoitzak bere kafe-makina erabiltzen zuen, bere gustuko kafe-marka. Agudo abandonatuko nukkeen itsasontzi hura, nora joan izango banu, baina ez zen debaldekoa lorategia ere bazeukan txalet hura ordaintzeko bankuarekin hartutako zorra. Hura bai zela lotuta mantentzen gintuen eratzuna.

–Ezin dugu horrela jarraitu –esan nion, *nire* kafea egiten ari nintzela.

–Horrela, nola? Zakurraren eta katuaren moduan?

Putakumeak bazekien amorragarria izaten.

–Erosiko dut etxearen zure zatia –esan nion, nola egingo nuen kalkulatu gabe.

–Ez dut saldu nahi.

–Salduko dizut nirea, orduan.

–Ez dut erosi nahi –erantzun zidan platano bat nazkagarriki irensten zuen bitartean.

Preso nahi ote ninduen? Kafea tragoz hustu eta, kalerako jarrita, lorategira atera nintzen. Zaunka etorri zitzaizdan zakur ñimiñoa, eta zapataren puntarekin emandako ostikada batez hegan jarri nuen. Zaunka kexati bat eta airean bizpahiru metro egin ostean, senarraren oinetara egin zuen korri ihesi, belarriak eta buztana jaitsita, negar txatxu harekin.

–Ukitu ezazu berriz, egiozu laztan bat, eta larrutik ordainduko duzu! –egin zidan mehatxu, kotxea martxan jartzen nuen bitartean.

–Miauuuuuuu! –erantzun nion leihatila jaitsita, katuaren atzamarkada bat marraztuz airean.

Hurrengo egunetan jasangaitza bihurtu zen geneukan elkarbizitza apurra ere: indiferentziatik mendekuetara pasa ginen: gatza bere kafean, arrasto itsusi bat nire autoan, betaurreko puskatuak bere mesanotxean, maiteen nuen liburua txikitua nire platerean. Mairidire artean Sandokanek zirin-kakak aurkitzea izan zen azkena. Zerbait egin beharra neukan, azkar egin ere, baina ez nekien zer, harik eta lanetik bueltan animaliak erosteko edo adopzioan hartzeko denda batekin topo egin nuen arte.

Han zeuden untxiak, zakurrak erbiak satorrak katuak, bisitariari –hurbiltzen zitzaientean– itzuri eginez eta kaiolaren zoko urrunenean kuzkurtuz; bizitzaren petralak eta jasotako jipoiek txertatutako beldurraren beldurrez, edo animalien berezko senaren bertutez, ezin jakin.

Eta bat-batean, gelaren txokorik ezkutuenean, bera ikusi nuen, kaiolaren erdi-erdian jarrita, eserita baina adi. Hasieratik jakin nuen ez zela katu beltz arrunt bat: ez zen kikildu gure etorrerarekin, eta bere begi berde ia gardenek nireak aztertu zituzten, koldarkeria zantzurik gabe, are harrotasun puntu batekin.

–Ez dizut gomendatzen –esan zidan dendariak–. Oso oldarkorra da; fox-terrier bati eraso egin eta begi bat atera zion duela bi aste.

–Fox-terrier bati? –galdetu nion, bere aholkuaren aurka behatza kaiolara gerturatzeko nuen bitartean.

Dendaria bera ere zur eta lur utzi zuen keinu bat egin zidan, ordea, katuak: bere begi berdeak zeharkatu nituenetik sumatu nuen konplizitatearekin, miatzkatu egin zidan behatza.

–Nola izena du? –galdetu nion.

–Ez dauka izenik –erantzun zidan–. Dendan Nikita deitzen diogu. Badakizu, *nacida para matar*. ■



Leku-izenen itzaletan, toponimia kriseilu

ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE

EUSKALTZAINDIKO ONOMASTIKA BATZORDEAREN KIDEA

Toponimia zientzia alorreko izen teknikoa da, grezierazko *τόπος*, ‘lekua’ eta *ονομα* ‘izena’ hitzak biltzen dituena. Hortaz, leku-izenak ditu aztergai onomastikaren diziplina honek, leku-izenen jatorria dela edo beren bilakaera linguistikoa dela. Hala ere, interes etimologiko nahiz historikotik harago, gertuko erabilpen praktikoa ere badu toponimiak: leku-izenek forma arautua behar dute herri-administrazioetan, kartografian, bide-seinalaztapenean, hedabideetan...

Izenen garrantzia ez da nolana hikoia. Antzinatean, izena eta izana lotu izan ditugure kultura-tradizioak. Horren adierazgarri, euskal mitologiaren mundu-ikuskeran, izena duen guztia omen da. Uste hori tradizio judu-kristauaren aztarna da, nonbait. Itun zaharraren hasieran, jainkoak mundua hitzaren bidez sortu zuela azaltzen da. Argia, itsaso-lurrak, landako abereak eta zeruko hegaztiak sortu zituen eta Adani “eraman zizkion zein izen ezartzen zien ikusteko”. Horrela, bizidun orok gizakiak ezarritako izena izango zuen. Egintza horren bidez, haren mendean hartu zituen animaliak.

Egungo begietara arrotza izan dakiguke, baina, behinola konnotazio magikotik erlijiosorik izan du izena jartzeak, behar praktikoa izateaz gainera. Hainbat kulturatan, sinetsi izan da zerbaiten izena ezagutzeak izendatutako objektuan eragitea eta are menderatzea ekar dezakeela. Esaterako, Makrobio erromatarrek zera idatzi zuen iv. mendean *evocatio* zeremoniaz: setiatutako hiri menderagaitz baten izen sekretua ezagutuz gero, hiri horren babesle ziren jainko-jainkosei laguntza eska zekiekeela garaipena erdiesteko. Erromak ere izen sekretua omen zuen, eta isilpean gordetzen zuten erromatarrek, etsaiek hiria menderatzeko *evocatio* erabil ez zezaten.

Herriek eta hiriek izena hartzen dute sorreratik beretik. Izena behar dute izango

badira, ezinbestean. Kasurako, Nafarroako Antso VI. erregeak 1181. urtean *Nova Victoria* fundatu zuenean Gasteiz herriaren gainean (“que antea vocabatur Gasteiz”), izen berria non eta foru-gutunaren lehen artikuluan agertzen da. Izen handinahikoa da, armada-oihartzune-koa. Gehiago dira halakoak Euskal Herrian. Arabatik irten gabe, Guardia eta Bastida modukoak daude, besteak beste. Bastidarik bada Nafarroa Beherean ere, frantsesez Labastide-Clairence dena. ‘Gotorleku’ esanahia du frantses zahar-rean (*bastir* ‘eraiki’ aditzetik eratorria, gaur egun *bâtir*). Esanahi militarrekoa ere dugu Kontrasta herriaren izena. Gaztelako Alfontso X. erregeak foru-gutuna eman zion 1256. urtean, Nafarroako mugan, lehengo izena aldatuta: “yo pus nombre Contrasta que avia ante nombre Arana”. Jatorriz gaztelaniazko *contrastar* ‘oponere’ aditzaren partizipioa da, eta ‘oposición’ esanahia du *contrastar* hitzak XIII. mendeko gaztelanian. Berebiziko izena artean guda-giroan zegoen mugako herri batentzat.

Leku-izenak mintzo dira. Historiaren lorratza dute hainbat aldiz. Adibidez, ez da falta hiri historiko ospetsuen erreferentziarik Euskal Herriko herrien izenetan. Nafarroan, Zangozako merindadean, Tebas herria dago (gaztelaniaz Tiebas). Bertan Nafarroako Teobaldo I.ak gaztelu bat eraiki eta egoitza izan zuen. Izena



Greziako eta Egiptoko Tebas hirien oroipena da. Antzera, Al-Andaluseko Kordoba hiriaren gomuta du Arabako Gordoa herriaren izenak: estreinakoz dokumentatzen da 1025. urtean *Gordova* formarekin eta *Cordoba* XIII. mendean. Horrezaz gainera, Cordovilla herria (hau da, Kordoba txikia) dago Galar zendea, Iruñeko merindadean.

Toponimia kriseilu hartuta, argi gehiago bota daiteke leku-izenen gainean. Hala ere, ez beti nahi adina. Itzal batzuk itxia goak izaten dira; esaterako, ibai zenbaiten izenak. Izan ere, hidronimia toponimiaren geruza zaharrenetakoa izan ohi da, antzinatik gehien irauten duten izenak baitira. Kasu ezaguna eta esplikatzen errazagoa da Deba ibaiarena. Izen bereko ibai gehiago daude iberiar penintsulako iparraldean bertan, Galiziatik Euskal Herrira bitartean. Adituen iritzian, jatorri zeltikoa du, eta ibaien nahiz iturrien jainkosarekin lotzen dute.

Orobat, zenbait mendik antzinatik gorde dute egun ere duten izena, mendetan aldatu gabe. Horietakoa da, Araban, Toloño mendia, Bastida ondoan. *Tullonio* pertsona-izenarekin eta ustezko jainko aurre-erromatarrarekin erlazionatu izan da. Toloño izena jatorriz mendi jakin bati badagokio ere, denbora igaro ahala zabalduz joan zen, Arabako Errioxaren iparraldean muga egiten duen mendilerro osoa hartzeraino. *Sierra de Cantabria* izena XVIII. mendean azken urteetan agertzen da lehenengoz eta sorburu kulturala du. Dirudienez, Lorenzo del Presta-

mero ilustratu arabarrak sortua da. Izen berria bide kultistatik zabaltzearekin batera, zokoratuz joan zen Toloño mendilerroaren izena. Erabateko izen-ordezkapena berantiarra da, *Sierra de Cantabria* izena ez baita gailendu xx. mendean hasiera arte.

Ikusten denez, toponimia datu-iturri interesgarria da hainbat zientzia-alorretan. Euskararen historiari dagokionez, jakina da euskaraz idatzita iritsi zaizkigun lehen testuak xvi. mendekoak direla. Aldiz, leku-izen asko nabarmen zaharragoak dira eta euskararen antzinako lekuko gisa agertzen zaizkigu. Hala, esaterako, dialektologiaren historiako datu polita da 952. urtean Arabako Ubarrundian dokumentatzen den *Ulibarrilior* toponimoa: mendebaleko euskararen berezko bi ezaguri ditu (*uli* < *huri* eta *barri*). Halaber, toponimia lagungarria izan daiteke euskararen geografia historikoan. Adibidez, Arabako Erriberagoitia udalerriko leku-izenetan oso presentzia ahula du euskarak eta historikoki horko herri askotxok ez du euskal forma ezagunik. Horietakoa zen duela gutxi arte Anúcita herria, euskaraz Anuzita formarekin araututa zegoena. Orain jakin berri dugu, ordea, xii. eta xiii. mendeetako dokumentazioari esker, Anuntzeta dela herri horren euskal izena, eta hala ofizialdu da.

Arkeologiak eta toponimiak ere badute motiborik elkarri arretatsu begiratzeko. Gero eta ohikoagoa da, zorionez, bien arteko harremana. Leku-izen soil batzuk aztarna arkeologikoen zantzu garbia izan daitezke. Adibidez, geografian zehar agertzen den *Karasta* edo *Garasta* toponimoa aspaldian lotu zuen Koldo Mitxelena *castra* 'gotorlekua' hitzarekin. Ez da kasualitatea Arabako Caicedo-Sopeñan,


Karasta deritzan lursail batean, burdin aroko aztarnategi bat aurkitu izana. *Armora* da beste toponimo interesgarri bat, kasu honetan megalitoen kulturaren aztarnekin zerikusia izan dezakeena. Hitzaren esanahia 'tumulu', 'harri mordoa' da eta, kasurako, Atauñ eta Idiazabal artean dago *Urrezuloko armurea* izeneko trikuharria.

Toponimiak erakusteko dituen jakin-garriak askoz gehiago dira, honetaz eta hartaz. Esaterako, herrien izenetan antroponimo latinoek duten presentzia zabala antzeman daiteke, dudarik gabe Erromak gurean ere izan zuen pisu eta garrantziaren erakusgarri. Audio *Claudius*-etik dator eta Bakio *Baccius*-etik. Arratiako Zeberio *Severiano* izen latinitik dator (oraindik *Ceberiano* izenarekin agertzen da herri hori 1375. urteko foru-gutunean). Halako izen asko daude Euskal Herriko geografian barreiatuta, eta gure historia ulertarazten laguntzen digute.


Eta antzinako kontuetatik gaur egunera etorrita, toponimiak ere badu zer erakutsi hirigintzaren alorrean. Jose Luis Lizundiak prentsan argitara eman zuen 2008an "Fadura askotako hondamendiak" izeneko artikulua, Getxoko Faduran izandako uholdeak zirela-eta. Euskaltzainak zioen lurra toponimoen bidez hitz egiten duela, eta hala da: *fadura* (edo *padura* eta *madura*) lexiko arrunteko hitzak dira euskaraz. Esanahiak garbi ohartarazten du halako izena duen lursailaren izaeraz: 'itsasertzeko edo bokaleko zingira', 'ibaiek gainez egiten dutenean urez betetzen den lurra'. Esteban Garibaik xvi. mendean jasotako erretratuak dio: "Mila urte igarota, ura bere bidean". Arrazoirik ez zaio falta.

Azaletik pasa gara toponimiaren gainetik. Besterik ez da artikuluxka honen asmoa: gehienez ere toponimiaren ekarriaz jardun eta, gehiegizkoa ez bada, ikerketagai hauekiko jakin-mina irakurlearengan suspertzea. ■

Hitz gezidunak

	Bahituran hartuak	↓	* DEITURA	↓	Memoria mota	↓	Gar	↓	Emakume izena
	Basapiztia mota	→	Lurpeko karraskariak	↓	Kaltzio oxidoa	↓	Zoritxarrez	↓	
	Inudea	→						Iodoa	→
	Labanak							Norbaitena	
Logura	↓	* IZENA	↓				Oinaze	→	↓
Ederki		Bezala					500		
					Mozkortuta	→			
					Automata				
Ez da egia	→						Infin., lortu	→	
Gazte sasoi							Boroa		
							Nafarroako herria	→	↓
							Zoro		
50	→	Gailur baxenabartar	→				Her. hizk., zer	→	
Izotza		Ingelesez, da					... egin, goitik ari		Ikastaroaren hasieran
				Emakume izena	→			↓	Naizen hau
				Oxigenoa					Bokala
Ugari	→				Lekuak	→		↓	

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Aiton-amonez gorako aurrekoa.
2. Irakeko hiria.
3. Gurasoen anaia.
4. Zuhaitzez jantzitako eremu.
5. Horma bateko tarte huts.
6. Esfera formakoa.
7. Zuhaitz.
8. Hosto ihartua.
9. XVIII. mende amaieran sortutako dantza.

SOLUZIOAK

S	U	A	I	N	A	R	A		I	K
R	T	A	M	I	N	O	R	A		
M	A	K	A	R	E	A	B	E	Z	
B	A	H	A	T	O	R	R	O	K	O
	B		A	I	Z	T	O	K	A	
			L	O	G	E	Z	L	E	A
			P	G	A	Z	L	E	A	S

1. Arbasoa.
2. Basora.
3. Osaba.
4. Baso.
5. Bao.
6. Bola.
7. Artbol.
8. Orbela.
9. Boleroa.

Hitz gezidunak

Goitik behera

zure
BABESA
HEZIKETA
INFORMAZIOA



tu
PROTECCIÓN
FORMACIÓN
INFORMACIÓN



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

www.kontsumobide.net

Argitalpen berria:

Komunikazio Elektronikoa.

IVAPen gomendioak web-orriak idazteko

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-s20001x/eu/s20aWar/novedadesJSP/s20aVerDetalleDesdeMail.do?s20aNuevodioma=eu&idValorSeleccionado=545Xo>



ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,
idatzi helbide honetara:

IVAP

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioeuskaraz@ivap.es

Abizenak

Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta